

Joseba Asiron,
Iruñeko alkatea:

**“Aldaketaren
begiradak gainean
sentitzen ditut”**



Datorren astean





Azaleko argazkia:
JOSU SANTESTEBAN
Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile-tza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estiñu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Irizkiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irueta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekora, 41 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko ekainaren 21a, 2.466. zenbakia

ASTEKO GAIA

BIODIBERTSITATEA Otsoa babestu... ala otsoarengandik?
UNAI BREA / 4

PERTSONAIA

IBAI FERNANDEZ: «Nafarroan hauteskundeetako galtzaile nagusia ehun urteko monopolio informatiboa izan da».
REYES ILINTXETA / 9

GAIK

ERASO SEXISTAK JAİETAN «Indarkeriarekiko neutralizatuta gaude, baina ez, ez da normala norbaitek ipurdia ukitzea».
MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 14

IRITZIAREN LEIHOA

ONGIZATE ESTATUAREN ALDAKETA

BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI / 18

HOLLANDE ETA EURO-KARTA JAKES BORTAIRU / 20

GAROÑA VERSUS SESTÀS JOXERRA AIZPURUA / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Aviron. ITXARO BORDA / 20

ZIRTAK Nik eman ta zuk hartu? JOXERRA GARZIA / 22

ERDIKO KAIERA

MUSIKA ELEKTRONIKOA EUSKAL HERRIAN Orain da zure garaia. LANDER ARRETXE BEREZIARTUA / 23

BERETERRETXEN KANTOREA Habil, eraikan bizirik!
ITXARO BORDA / 26

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URİA / 30

MUSIKA MONTSERRAT AUZMENDI / 31

IHESI OTXANDIO (BIZKAIA) Natura biziaren erdian.
AMAIA UGALDE BEGOÑA / 32

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 34

OSASUNA JABIER AGIRRE / 35

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 36

● **BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU** / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

HIRIGINTZA PLANAK ETA EUSKARA Hizkuntza eragina neurtzeko tresna biribiltzen. ONINTZA IURETA AZKUNE / 40

TXANPONAREN BESTE ALDEAK Mundua aldatzeko hiru aukera: gosaritan, bazkaritan eta afaritan.
ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 42

JOSEBA ASIRON: «Ikurrina beti egon da txupinazoan eta aurtun ere egongo da». XABIER LETONA / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IURETA AZKUNE / 43

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 43

NET HURBIL Zer bilakatuko da Kaliforniako ametsa urik gabe geratuta? PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50



ARTURO DE FRIAS MARQUES-CC BY SA

Otsoa babestu...

Norainiko prezioa ordaindu behar du jendarteak otsoa kontserbatzearen truke? Eta ez kontserbatzeak, zer kalte dakar? Nekazariak kontrol neurriak eskatzen dituzte, abeltzaintza estentsiboari euste aldera. Kontserbazioaren aldekoek, berriz, diote otsoa Euskal Herritik kanpo mantentzea huts handia dela biodibertsitatearen ikuspuntutik. Administrazioak lehenbizikoei egiten die kasu, momentuz.

| UNAI BREA |

URTARRIL AMAIERAN, 24 elkarte ekologista eta naturalistak eskari bat erregistratu zuten Eusko Jaurlaritzan. Mehatxatutako Espezieen EAEko Katalogoan otsoa sartzea eskatzen zuten, Galtzeko Arriskuan daudenen kategorian. Mota horretako ekimen bat jendarte zibil-eko eragileek eskutik etorri den kasu bakarra da orain arte; normalean, administrazioak berak galdatzen du espezie jakin bat katalogoan sartzeko. Baina EAEko administrazioek ez dute otsoa behar bezala babesteko borondate-rik, ingurumenaren aldekoen ustez. Oraingoan, euren eskaria ez da aintzat hartua izan.

Jaurlaruzari helarazitako eskarian, kontserbazioaren aldekoek azpimarratzen dute EAEn ez dagoela egonkortutako otso talderik, eta

mendebaldeko erkidegoetatik Euskal Herrira sartzen diren ale apurrek hilkortasun tasa handia jasaten dutela giza jazarpenaren ondorioz.

Egoera berean legokeen beste edozein espezie Mehatxatutako Espezieen Katalogoan egongo litzatekeela uste dute. “Otsoa, aldiz, kanpoan utzi da, Espainiako Estatuan oro har egoera onean dagoelakoan, eta beraz ez diolako axola hemen zer egiten dugun”, dio Jorge Echegarayk, Euskadiko Otso Taldeko kide eta Ingurumen Zientzietan lizentziadunak. “Bitxia da argudio hori ez dela erabili Katalogoan dauden beste espezie batzuen kasuan, ugartzarenean edo sai arrearenean esaterako, Espainiako Estatuan duten egoera otsoarena baino hobeia izan arren”.



ala otsoarengandik?

Ez da erraza eremu jakin bateko otso kopurua zehazki ezagutzea, gizakiengandik ezkutatzeko joera baitute; horregatik, zeharkako metodoak erabili behar dira haien populazioen tamaina kalkulatzeko. EAEko Mehatxatutako Espezieen Katalogoan otsoa sartzeko eskariarekin batera aurkeztutako justifikazio txostenean, arestian aipatutako 24 elkarteek argudiatzen dute gabeziak daudela Iberiar penintsulako ale kopurua eza gutzeko azken hamarkadetan egindako ikerlanetan. Hartara, kopuru hori etengabe hazten ari dela besterik gabe ontzat ematea alde batera lerratzeari litzateke. Eta hala balitz ere, naturaren kontserbazioaren aldekoek uste dute argudio horrek ez duela justifikatzen EAEn otsoa babesgabe uztea.

Galdutako eremuak berreskuratzen

“Otsoa izan da, gizakiaren ostean, mundu osoan zabalkunde handiena izan duen ugaztuna”, azaldu digu Jorge Echegarayk, “baina haren aurkako jazarpena izugarria izan da

“Egia da oro har abeltzaintzarekiko inpaktua ez dela handia, baina mehatxua inguruan daukaten artzainen bizi kalitatea ez da onargarria”

Alberto Llona, EHNE-Bizkaia

kontinente guztietan”. XIX. mendean, chiza metodoen hobekuntzak sekulako atzerakada eragin zion espezieari Amerika eta Europan. Gure kontinenteari dagokionez, Errusiarekin muga egiten duten ekialdeko eremuetan aurkitu dezakegu batez ere. Gainerako populazio gehienak Mediterraneo aldeko mendi eremuetan daude: Alpeak, Apeninoak, Balkanak, Pirinioak, Iberiar penintsulako ipar-mendebaldeak...

Eremu horietako batzuk orain dela nahiko denbora gutxi birkonkistatu dituzte otsoek. Literatura zientifikoak jasotzen duenez, harrapari handiak galdutako zenbait habitat berreskuratzen ari dira, hainbat arrazoi medio. “Hartu diren neurri legalei egotzi ohi zaie hori”, dio Echegarayk, “baina batzuek uste dugu gizakiak landa-eremutik alde egin izanaren eta ondorioz basoak berrosatu izanaren ondorioa dela”.

Iberiar penintsulako otso taldeak kasu berezia dira Echegarayren esanetan, “mendek daramatzatelako beste populazioetatik isolatuta”. Isolamendu horrek hainbat kalte



egin die, genetikaren ikuspuntutik besteak beste. Gaiari buruzko azalpen teknikoegietan katramilatu gabe, esan dezagun besterik gabe iberiar otsoek joera dutela Kantauriar mendikatetik ekialderantz, alegia Pirinioetarantz, zabaltzeko, eta lotura hori burutzea ona litzatekeela biodibertsitatearen ikuspuntutik. Haatik, otsoek hesi batekin egin dute topo EAEko mendebaldean. “Hesi hori ez da ekologikoa, soziokulturala eta sozioekonomikoa baizik”, dio Echegarayk.

Abeltzaintza estentsiboak urrun nahi du otsoa

Otsoen eragina, Euskal Herrian, Bizkaia eta Arabako mendebaldeko eskualdeetan baino ez dago. Gaur-gaurkoz, Gorbeia ingurua da iristen diren eremu ekialdeenak. Mehatxatutako Espezieen Katalogoa osatzea eta eguneratzea Eusko Jaurlaritzaren zeregina den arren, espezieen kudeaketa aldundiei dagokie. Bai Bizkaian bai Araban, otsoarekiko politikaren

Ardi latxa da Euskal Herriko artzaintza estentsiboan erabiliena. Mota horretako abeltzaintzarako oso egokia da, inguruari oso ondo egokitzen baitzaio. Nekazari sindikatuen esanetan, eredu estentsibotik intentsibora aldatzeak (otsoaren presioagatik adibidez) beste arraza batzuekin lan egitera behartzen du.

ardatzetako bat populazioen kontrol neurriak dira, helburu batekin beti ere: abeltzaintza estentsiboa babestea, eta bereziki artzaintza.

Administrazioaren jarrerak, orobat, bat egin du lehen sektoreko sindikatuen aldarriekin; nahiz eta sindikatuen ustez kudeaketa hobetu beharra dagoen. Ingurumenarekiko sentiberatasuna duten sindikatuak ere otsoari mugak ezarri behar zaizkiola uste dute. “Guk ez dugu ‘otsoa bai-otsoa ez’ eztabaida sustatu gura”, esan digu EHNE-Bizkaiaiko kide Alberto Llonak; “uste dugu populazioen kontrola egin behar dela, otsoak kalte egiten diolako guretzat eredugarria den abeltzaintza estentsiboari”.

Populazioen kontrola esatean, noski, otsoak akabatzeaz edota uxatzeaz ari gara. Abeltzaintzak jasandako kalte guztia otsoei egozteak jazarpena ekarri du, eta jazarpen horren ondorioz euskal lurraldeetan zeuden ia otso guztiak desagertu dira, Jorge Echegarayren esanetan.

Otso Taldeko kideak emandako datuen arabera, 1987-2005 epealdian 63 otso akabatu dira EAEn, erdia baizik ez legearen barruko ehizaldietan. Legez kanpo hildakoak %40 dira, eta gainerakoetatik gehienak autoek harrapatu zituzten.

Sindikatuaren eskaria: Hego Euskal Herria, otsorik gabeko lurraldea

EHNE-Bizkaiaaren eta beste hainbat nekazari sindikaturen iritziz, otsoak dauden eremueta-ko administrazioek elkarrekiko koordinazioa hobetu beharko lukete espeziearen kudeaketari dagokionez. Zehazkiago, Iberiar penintsula osorako gestio plan bat diseinatzeko eskatu dute; plan horrek bermatu egingo luke otsoaren kontserbazioa zenbait eskualdetan —europar araudia beteko litzateke, hartara—, eta aldiz, neurriak ezarriko lituzke beste batzuetan otsorik ez sartzea bermatzeko. Otsorik gabeko eremuetako bat Hego Euskal Herri osoa izan beharko litzateke, EHNE-Bizkaiaaren ustez. “Izan ere, gaur egun ezinezkoa da otsoaren

GARRAXI TABERNA	GARRAXI JATETXE BEGETARIANO, BEGANOA Eguneko menua 11 € Eguneko platera 8,5 € Aste buru eta gauetan karta, entsaladak, arrozak, pizzak, guakamole eta askoz gehiago.. Tejeria kalea 9, 20012 Donostia · Gipuzkoa ☎ 943 27 52 69	
---	---	--

Otsoa da errudun bakararra?

EZIN DA SEGURUTZAT JO otsoei leporatzen zaizkien ganaduaren aurkako eraso guztiak otsoek egindakoak direnik, Jorge Echegarayren esanetan. Araban eta Burgosen egindako ikerlan batean, bera eta beraren lankideak konturatu ziren otsoarenak bailiran bildutako gorotzen erdia txakurrenak zirela izatez, eta txakurrek ere jaten zituztela ardiak, otsoek baino proportzio handiagoan gainera.

“Gure ikerketa metodoak ezin du argitu txakurrek eurek hil zituzten ardiok edo otsoek utzitako hondakinak jan besterik ez zuten egin, baina literatura zientifikoak erakusten du txakurrek errefusatu ohi dituztela otsoek utzitako haratustelak”, argitu du Echehgarayk.

Seguru egoteko, beste ikerlan bat egitea proposatu zioten administrazioari: hildako abereen zauriak miatu, erasotzaileen ADN arrastoak atzemateko. “2004an egin genuen proposamena, azterketa genetikoaren gastuak geure gain hartuta gainera, eta erantzunaren zain gaude oraindik”, dio Otso Taldeko kideak. Hala ere, era horretako esperimendu bat Katalunian egin dela adierazi digu. “Han konturatu ziren otsoei leporatutako kalteen %25 baino ez zirela otsoek eragindakoak”.



presentzia eta abeltzaintza estentsiboa bateratzea”, irakur daiteke sindikatuaren jarrera laburbiltzen duen dokumentu batean.

“Otsoa zabaltzen den heinean sektorearekin egin du”, dio Alberto Llonak, “batez ere ardiekin dabiltzan kasuan”. Artzaintza estentsiboa larreen aprobetxamenduan oinarritzen da; alde horretatik, garrantzia du erdu horretan gehien erabiltzen den ardi arraza latxa izatea, inguruaren ezaugarrietara primeran egokituta baitago. Eredu intentsibora jotzeak beste arraza batzuk erabiltzera behartzen du, latxa ez baita horretarako proposa. Esan gabe doa estentsibotik intentsibora

aldatzeko presioa arrazoi askorengatik gertatzen dela, eta otsoa horietako bat besterik ez dela, Alberto Llonak aitortu duenez.

Otsoa babestea eskatzen dutenen argudio bat da erasoen ondorioz galtzen den ardi kopurua ez dela oso handia guztizkoarekiko. Jorge Echegarayren esanetan, 360.000 ardi-buru inguru daude EAEn –kilometro koadroko 49–, gehienak Gipuzkoan, otsorik gabeko lurralde bakarrean alegia. Otso Taldea estatistika ofizialetan oinarritzen da inpaktuaren txikia azpimarratzeko: Araban –Bizkaiko datuak lortzea askoz zailagoa da– 2000-2007 epealdian izandako erasoek ardi







Ekain berri



**Euskal
Kulturaren
sustraiak**

Sarreraren salmenta | Venta de entradas

ONLINE

www.ekainberri.com

943 86 88 11



kopuru osoaren %0,23ri eta ustiatuegien %2ri baino ez zioten eragin, hildako, zauritutako eta galdutako aleak kontuan hartuta.

Artzainenganako eragina, batez ere kualitatiboa

“Egia da oro har abeltzaintzarekiko inpaktua ez dela handia”, erantzun die Alberto Llonak datuoi, “baina mehatxu hori inguruan daukaten artzainen bizi kalitatea ez da onargarria, kalte ordainak jaso arren; ezin daiteke mendira egunero igo, ardiak hilda egongo diren ala ez jakin barik”. Zenbait lekutan erasoak oso maiz gertatzen direla dio Llonak, ez egunero baina bai astero.

Honenbestez, Araba eta Bizkaiko eskualde batzuetan artzain askok ez dituzte lehen bezain sarri eramaten ardiak mendira. “Horren ondorioak ikusteko daude, ikusiko dugu zelan aldatzen diren paisaia, biodibertsitatea eta abar. Abeltzaintzaren beraren ikuspuntutik ere kaltea dakar esplotazioa menditik herrira jaisteak: kostuak handitzen dira, ardien osasun egoera okertzen da...”.

Arabako Otsoaren Kudeaketa Planen irakur daitekeenez, otsoaren erasoetatik babestu behar eragin du artaldeek ematen duten denbora, batez beste, %33 murriztu izana. Iturri beraren arabera, gauero ganadua



Euskadiko Otso Taldearen arabera, azken urteetan ugalketa gaitasuna duten otso taldeen %75 desagertu dira Euskal Herriatik (lautik hiru). Iturri beraren arabera, 1987-2005 epealdian gutxienez 63 otso izan ziren hilak EAEn, horien %40 legez kanpo, %50 administrazioak baimendutako ehizaldietan eta %8 inguru autoek harrapatuta.

gorde beharrek larreen aprobetxamendua eskasagoa izatea eragiten du, eta artaldeek zaintzari eskaintako denbora ia hiru bider handiagoa da otsoaren eraso arriskurik ez dagoenean baino. Baldintzak gogortzeak eragin du gazte gutxiago gerturatzea lanbidera.

Nola babesten da hobekien biodibertsitatea?

Bai lehen sektoreko sindikatuek bai administrazioek otsoari Euskal Herrira sartzea galaraztearen alde darabilten argudio bat da abeltzaintza estentsiboak biodibertsitateari mesede egiten diola. Izan ere, abereak larreetatik desagertzeak modu esanguratsuan eraldatuko luke habitat mota hori.

Jorge Echegarayren ustez oso makurra da biodibertsitatearen izenean otsoa Euskal Herriatik kanpo mantendu nahi izatea. Lehenik eta behin, makurra delako otsoaren presentziak berez abeltzaintza desagertzea dakarrela esatea. Bigarrenik, ez delako bidezkoa

esatea Euskal Herrian ondo kontserbatu diren habitat ugari lehen sektorearen jardunari esker kontserbatu direla. Bestalde, kontuan hartu behar da biodibertsitatea babesteko helburua duen Natura 2000 sare europarraren barruan otsoa dagoela. “Haatik, esaten dute bertoko kontrol neurriek ez dutela eraginik espeziearen kontserbazioan”, kexu da Echegaray; “penintsulako beste toki batzuetan otsoa egoera onean dagoenez, ez du axola hemen zer egiten dugun”. ■

“Antza denez, penintsulako beste toki batzuetan otsoa egoera onean dagoenez ez du axola hemen zer egiten dugun”

Jorge Echegaray, Otso Taldea

IBAI FERNANDEZ

«Nafarroan hauteskundeotako galtzaile nagusia ehun urteko monopolio informatiboa izan da»

Informazioaren indarrak mundua aldatzeko balio du, baita Nafarroan ere.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco



Agoizkoa zara, UPNko Javier Esparza bezala.

Bai, eta Unai Lako Bilduko alkatea eta Patxi Eugi pilotari ohia bezala. Izatez eta bihotzez agoiztarra naiz. 4 urte nituela Iruñera, Txantrea, bizitzera etorri baginen ere, kuadrila Agoizkoa dut eta aisialdiko denbora beti herrian eman izan dut.

3 urteko mutiko baten aita zara eta orain nes-kato baten zain zaudete. Kontziliazioa zaila da kazetariarentzat?

Bai. Nire emaztea ere kazetaria da eta nik egunkarian ordutegi txarrak dauzkat. Gaueko hamarrak baino lehen bukatzea zaila izaten da. Nire kasuan, gainera, ezinezkoa da etxetik

lan egitea. Erredakzioa bizia da: enfokeak adostu behar dira, azken orduko kontuak egoten dira... Talde lana da, azken finean.

Kazetaritza bokazioa duzu?

Gehiago kasualitatea izan dela esango nuke nik. Egia da beti informazioarekin egon naizela interesatuta, baina gaztetan futbolaria izan nahi nuen. UBI bukatutakoan, unibertsitaterako matrikula egin behar nuenean erabaki nuen ikus-entzunezko kazetaritza hautatzea. Prentsa idatzia ez zitzaidan gehiegi gustatzen, lan handia zela uste nuelako. Aurkitu nuen irratia- ren bidea eta hortik abiatu nintzen. NET 21 kateko kirol atalean sartu nintzen oraindik unibertsitatean nengoela; Osasunaren futbol partidak jarraitzen nituen Sadarren. Oso oroitzapen politikak ditut. Ez nuen ezer kobratzen eta ordu pila sartzen nuen, baina futbola oso gustukoa nuen, partidak ikusten nituen doan eta, gainera, kanpoko ateraldi guztietara joaten ginen. Espainiako futbol zelai handi guztietan egona naiz ni. Hori 20 urterekin oso bizipen polita da. Gero Lanzaroten izan nintzen urtebetez hango egunkari batean. Lagunekin joan nintzen eta esperientzia bezala oso ongi egon zen. Guretzat ia jolas modukoa. Ustelkeriaz asko hitz egiten dugu gaur egun, baina han ezagutu genuena ez dut beste inon ikusi. Eraikuntzari lotuta, politikarien eta komunikabideen arteko interes trukaketa... “Nola da posible hau?” pentsatzen genuen. Gure zuzendariak, adibidez, elkarriketak saltzen zizkien politikariei, kobratu egiten zuen elkarriketaren truke.

Iruñera itzuli eta Canal 6 telebista kate jaio berrian hasi zinen.

Bai. Euskaldun bat behar zuten eta horrela sartu nintzen. Kasualitatez. Ondoren Radio Euskadin hasi nintzen lanean asteburu- etako albistegietan. Halere hor ez nuen ongi ikusten neure burua. Oso mugatuta sentitzen nintzen eta emaitza ez zen oso ona. 2005ean hasi nintzen kolaborazio batzuk egiten *Diario de Noticias*en. Lagun batek, María Solanak, utzi zuen euskarazko ataleko ardura eta niri eskaini zidaten. Ondoren Politikan sartzeko aukera izan nuen eta hasieran beldur pixka bat ematen bazidan ere, gogoz hartu nuen. Orduan hasi nintzen nire lanaz harro sentitzen.

Euskalerria Irratian ere kolaboratzen duzu.

Espiritu kritikoan eta duintasunean, Euskalerria Irratia eredugarria iruditzen zait. Zaila da kazetaritza hobea eta duintasun handiagoz egitea. Oztopo guztien gainetik nola ari diren lanean ikusita, ezin diet ezetzik eman saio batean parte hartzeko eskatzen didatenean. Bikain ari dira eta aurpegi onez gainera. Urtean behin afaritxo bat egiten da kolaboratzaileekin,

CAN dietak

“Nafarroako kutxa erabili zuten poltsikoa betetzeko eta interes politikoa batekin. Zuzendaritzak aginte politikoa erosi zuen. Epaitegi Gorenak nahi duena esan dezake eta nik ez diot eztabaidatuko, baina legearen irakurketa interesatua egiten dute eta ez nator bat”.

musu-truk egiten duten lana eskertzeko, eta ikusten duzunean zenbat lagun elkartzen garen eta zer nolako kalitatea dagoen hor, harrituta gelditzen zara. Eta hori ez da Euskalerria Irratiak errukia ematen duelako, bere lana oso ongi egiten duelako baizik. Jendea gustura dago eta proiektuaren parte sentitzen da. Euskalerria Irratiak sare sozial sendoa ehundu du Nafarroan azken hogeita zazpi urte hauetan.

Aldaketa politikoa iritsi da azkenean Nafarroara. Zer balorazio egiten duzu?

Aitortu behar dut nahiko harrituta gelditu nintzela emaitzekin. Pentsatzen nuen aldaketarako baldintzak bazeudela baina oso konplikatu izango zela PSNren laguntzarik gabe egitea. Arraroa egin zait Podemos bezalako alderdi bat hain indartsu agertu izana aber- tzaleei deus ere kendu gabe. Hori ezinbestekoa zen Geroa Bai, EH Bildu, Podemos eta I-Eren artean hogeita sei eserleku lortzeko. Oso konbinaketa zaila zen: I-Ek eutsi behar zion, Geroa Baik eta EH Bilduk gora egin behar zuten pixka bat eta Podemosek indartsu sartu behar zuen. Gainera esparru politiko eta instituzionala alderdien artean banatuta gelditu behar zen, denek protagonismoa izan zezaten akordioetarako negoziazioa errazteko. Elementu pila bat behar ziren eta, bada, denak batera baieztatu dira.

Eta Ciudadanosek ere bere rola izan du...

Bai, 9.000 pasa boto eskuratu ditu zuzenean zakarrontzira botatzeko.

Zergatik izan da posible aldaketa oraingo honetan?

Jendea uste duguna baina azkarragoa delako. Politikarien aldetik, eta komunikabideetatik ere askotan, oso modu sinplean tratatzen da jendea eta orain ikusi dugu gizarteak zein erantzun azkarra eman duen. Herritarrak nazkatuta daude politikarekin baino gehiago politikariek. “Kasta” hitza ez zait gehiegi gustatzen, oso orokorra delako eta alderdi guztietan badi- relako ordezkari politiko batzuk lan ona egiten dutenak, baina ongi islatzen du pertzepzio bat: politikariak gizartearengandik aldendu direla.

NORTASUN AGIRIA

Ibai Fernandez Lakabe. Agoitzen jaioa 1980ko otsailaren 6an. Kazetaria. *Diario de Noticias*eko Politika saileko erredaktorea eta Euskalerria Irratiko kolaboratzailea. Prentsaurrekoetako kazetari zirkatzailea. UPNren zigorra, azken legealdian bereziki. Bere lan periodistikoaren artean, desagerrarazitako CANen dieten inguruko informazioa azaleratzea nabarmendu daiteke.



AZKEN HITZA

Miguel Sanzekin

“2007ko hauteskunde kanpaina orain ikusi duguna baino gogorra goa izan zen UPNren aldetik. Orduan egin zuten Nafarroa saltzearen aurkako manifestazio hura, adibidez. Miguel Sanz parlamenturako hautagaia zen eta behin eta berriz elkarriketa eskatuta ere, ez zegoen modurik. Azkenean onartu zuen gurekin solas egitea kanpainaren azken egunean, arratsaldeko zortzietan eta Monteagudon, Nafarroako azken herrian. Oso galdeketa gogorra izan zen eta bukatutakoan, Sanzek alde egin ondoren, ohartu nintzen ez nuela ezer grabatu. Sanz mitin batean zegoela, lortu nuen harekin hitz egitea eta bi ordu beranduago berriz elkarriketa egiteko aukera eman zidan. Txantxetan esan ohi dut hauteskundeak gau hartan egin izan balira nik botoa Sanzi emango niokeela”.



Guk egunkarian “erregimena” esaten diogu orain arte izan dugunari. Alderaketa egiten dugu Nafarroa ofiziala eta Nafarroa errearen artean. Nafarroa ofizial hori itxi egin da izugarri, errealtatetik kanpo gelditu arte, eta jendea horretaz ohartu da. Hortik UPNk galdu dituen 20.000 boto horiek eta Podemosek eskuratu dituen 45.000 bozak. Krisiari erantzuna ematea eta gizarteari politika itzultzea da jendeak eskatu duena. Krisi testuinguru honetan UPNk gestio txarra egin du eta, gainera, bere harrotasun horri helduz, ez du inoiz autokritikarik egin. Aldi berean ikusi dugu nola beldurraren diskurtsoak indarra galdu duen. “Nafarroa desagertuko da” mezuak jada ez du jendea mugiarazten, eta are gutxiago hemendik lau urtera, gobernuak eta udalek lan ona egiten badute eta lehentasunak ongi ulertzen badituzte. Aldaketarako aukera bakarra dago eta ongi egin behar da.

Informazioa giltzarria izan da prozesu honetan. Noticiasen pisua bereziki handia izan da?

Ez dut harroputza izan nahi, eta umiltasunetik diot, baina esan daiteke orain Nafarroa ezin dela ulertu *Diario de Noticias* gabe eta aldaketa ezin dela ulertu egunkari honek jokatu duen papera aintzat hartu gabe. Nafarroan ongi informatuta egoteko komunikabide asko kontsumitu behar dira eta *Noticias* ezinbestekoa da diskurtso ofizialaren atzealdea ulertzeko. Uste dut hori izan dela gure lana, bereziki azken lau urte hauetan. Guk aspaldian salatu ditugun gauza asko agerian gelditu dira legealdian zehar. Gure salaketa nagusietakoa izan da Nafarroaren osasuna gaizki zegoela. Nafarroako Gobernuak hori ukatu du eta talka gogorak izan ditugu horren kontura. Epaitegiatar eraman gaituzte askotan argitaratutako berriengatik, adibidez. Baina egia da, eta hauteskundeetako emaitzek hala erakusten digute, jendea gurekin bat datorrela. Gurekin batera

Datozen Sanferminak

“Sanfermin hauek oso garrantzitsuak izango dira: Iruñeak festa egiten badu normaltasunez, iskanbilarik eta kontu artifizialik gabe, beldurra gaindituko da. Irailean jende askok ahaztuta izango du alkatea nor den ere eta horrek normaltasuna erakutsiko du. Kontu txikietatik etorriko da aldaketa handiena”.

beste eragile sozial, mediatiko eta politiko asko gogor aritu dira lanean Nafarroa erreala erakusteko zeregin horretan.

***Diario de Navarra* indarra galtzen ari da?**

Hemen Nafarroan monopolio mediatiko gogorra egon da ehun urtez, baina hori amaitu egin da. Politikariek, enpresariek... ohore egin eta baimena eskatu diote modu sistematikoan. Hauteskunde hauetan galtzaile nagusia monopolio informatiboa izan da. Ez dakit erregimenaren hondamendia eta monopolioen desegitea noraino bata bestearen ondorioa edo kausa den. Biak elkarrekin doaz.

Demografia eta teknologia berriak ere monopolio horren kontra doaz?

Bai, hala da. Jendeak eskura ditu informazio iturri gehiago eta doan, gainera. Gure webgunean adibidez, oso parekatuta gabiltza *Diario de Navarra*arekin. Horrek erakusten du jendeak biak kontsumitzen dituela.

Ikerketa kazetaritza sakona egin duzue hainbat aferetan; CANen dietak bistarazi zenituzten, adibidez.

Dieten kontua gure arrakasta mediatiko handienetakoa izan da. Beste hainbat komunikabiderekin alderatuta, enpresa handiagora gara eta horretan abantaila dugu. Beste askok baino langile gehiago dugu eta horrek aukera ematen digu eguneroko lanaz gain beste gai batzuk denboraz lantzeko. Komunikabideetan oso garrantzitsua da giza baliabideak izatea. Hori enpresari askok ahazten dute. Eta eskarmentua ere behar da espiritu kritikoa izateko eta prentsa oharren atzean irakurtzen jakiteko, bestela komunikazio agentzien eta kabineteen eskutan gelditzen zara. Ni ez naiz duela hamar urteko kazetari bera eta, modu berean, bekadun batek ezin du nire lana egin, ez ni bereziki ona naizelako, baizik eta logikoa delako.

Barcinaren zigorra izan zara?

Ez dut uste. Ni lantalde bateko pieza bat besterik ez naiz, baina agian *Noticiasen* aurpegia izan naiz berarentzat. Aldaketaren eragileak asko izan dira: parlamentari batzuek eginiko lan bikaina, Kontuz bezalako eragile sozialak, osasungintza-aren alorrean izan diren salaketa guztiak...

Zer gertatuko da orain Barcinarekin?

Ez dakit eta egia esan ez zait gehiegi axola. Alderdiak gainetik kendu du. Jarraitzen du UPNko presidente gisa, baina hemendik ez oso luzera kenduko dute. Oso esanguratsua da ikustea Barcina nola irten den Gobernutik, alderditik eta, seguruenara, nola irtengo den Nafarroatik: ate txikitik. Madrilera joanen da eta inork ez du faltan sumatuko.

Kazetariok bai...

Eta nik pertsonalki agian ere bai, mediatikoki gozamina izan delako: katramila batetik atera eta hurrengoan sartu. Niri arratsalde loriagariak eman dizkit. Egun Barcina UPNrentzat zama bat da. Elitismoa, irribarre faltsua eta auto ofizialaren politikamolde zahar hori ordezkatzeko du. Agian zorte txarra ere izan du eta Sanzek eta aurrekoek egindako hutsegite guztiak berak jan behar izan ditu: Navarra Arena Sanzen kontu bat izan zen, dietena Sanzek eta Enrique Goñik diseinatu zuten, Volkswageneko BEZarena aspalditik zegoen lotua... Denak herentzian iritsi zaizkio, baina oso gaizki kudeatu ditu.

Ez da izan berak uste zuen liderra?

Azken lau urteotan Nafarroan benetako lidergoa falta izan da. Lidergoa beharrezkoa da gizarte batean, baina Barcinak agintekeria erakutsi du, lidergoa baino. Mezu oso sinpleez baliatu da eta horrek soilik balio du dirua duzunean.

Uxue Barkos izan daiteke lider hori?

Jendeak ezaugarri hori bilatu du berarengan,

Beldurra

"Aldaketarengatik ikaratuta dauden horiei beldurra kendu behar diegu. Hemendik lau urtera beldurrik ez izatea lortzen badugu, nik uste aldaketa betirako izango dela. Mentalitate aldaketa hori lortzen badugu, beste Nafarroa bat izango dugu etorkizunean".

nire ustez. Orain ikusi beharko da nola erantzuten duen. Ez da batere erraza izango lau alderdi batzea gobernu baten inguruan. Nafarroa Bairen baitan lortu zuen alde desberdinen integrazioa eta orain ikusi beharko da ea gobernuan ere lortzen duen. Eskuzabaltasuna behar du eta bere boto emaileak ez direnak ere integratu. Bi Nafarroan bizi izan gara orain arte, bazterketaren Nafarroan, eta euskaldunok bereziki baztertuak izan gara. Bloketako politikan ez erortzea berriro Nafarroaren erronka nagusia da, baina interes politiko asko egongo dira hori zangotrabatzeko. Alde horretatik oso zentratuak ikusi ditut bai Uxue Barkos bai Joseba Asiron ere. Sanferminetako prozesioan parte hartuko duela esan du Asironek, esate baterako. Batzuei seguru hori ez zaiela gustatu, baina ez dugu ahaztu behar Iruñeko alkatea den ordezkarria dela eta hauek direla gizarteari bidaltzen zaizkion mezuak. Barkosek PSNri atea irekitzea ere beste keinu bat da. PSN ez da sartuko, baina jendeari bidalitako mezua hor dago. Kontu txikiak dira benetan garrantzitsuenak, jendeari eragiten diotenak.

Euskalgintzak arnasa hartuko du azkenean?

Bai, eta hain gaizki bizi izan garenez arnasa hartzearekin konformatzen gara. Harri bat izan dugu beti gainean eta soilik harria gainetik kentzearekin nahikoa izango dugula iruditzen zaigu. Halere, nik uste dut zorrotz jokatu behar dugula eta anbizioa izan guri dagokiguna eskatzeko, baina poliki. Hemen, eskaladan bezala, pauso txikiak baina ongi lotuak eman behar dira, atzerapausorik ez dadila izan.

Nafarroako eskuinak berrasmatu egin beharko du bere burua?

Nafarroaren aniztasuna onartzera behartu beharko dugu. Zenbakiak begiratu Nafarroa ez dela horrenbeste aldatu ikusten da. Jendeak aukera bat eman dio aldetari, besterik ez. ■



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

«Indarkeriarekiko neutralizatuta gaude, baina ez, ez da normala norbaitek ipurdia ukitzea»

Jai giroa arnasten da jada Euskal Herrian, baina herrietako festekin batera, eraso sexistak ugaritu ohi dira. Nagore Laffage irundarra dugu adibide lazgarrienetakoa; José Diego Yllanese 2008ko Sanferminetan hil zuen, ezetz esan ziolako. Asun Casasola Nagoreren amarekin eta haren borroka eredutzat izan duten Txingudi Anti Sexistako Oihana Etxebarriarekin izan gara.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

URTE OSOKO desinhibitzearekin lotzen ditugu jaiak, dena dago baimenduta. Hala ere, muga batzuk markatzen ditugu, “baina badirudi emakumearen gorputza ez dela muga, besteen gozamenerako erakargarri bat baizik, desio iturri bat”, dio Etxebarrietak. Horren lekuko, Sanferminetako urteroko irudiak: neska kamiseta kenduta eta mutil andana inguruan, ahal bezainbeste esku sartzen. Elkarrizketatuen hitzetan, gauza bat da jaien euforian topless-a egiteko gogoia izatea, eta bestea hori egiteagatik gainerakoek zu ukitzeko baimena eta esku-bidea dutela pentsatzea. Lotsagarria iruditzen zaie aurten oraindik ere konpainia turistikoek irudi horiek erabiltzea atzerritarrek Iruñera erakartzeko. Halako publizitatea ez da onargarria, eta administrazioaren erantzukizuna ere badela gaineratu du Etxebarrietak: “Eraso sexistak saihesteko prebentzioa funtsezkoa da eta prebentzioa da, adibidez, konpainia turistiko horri isuna jartzea, neurriak hartzea. Bestela, desoreka izugarria da: berdintasun planen baitan gu hitzaldi pare bat ematera joan gaitzke eskolara, baina institututik atera eta gero errealitate hori aurkitzen badute, edo *Mujeres y hombres y viceversa* telebista saioa ikusten badute egunero, zein zentzu dauka landutakoak?”.



Asun Casasola (atzean) eta Oihana Etxebarrieta. Casasolaren borroka inspirazio izan dute Txingudi Anti Sexistako kideek.

Zein ari gara epaitzen, erasotzailea ala biktimia?

Jaietako desmasien baitan, mugak ezartzea zailagoa dela dirudi, eta alkoholaren edo drogen eraginpean egindakoa desenkusatzeko dugu maiz. Alkohola, orde, aitzakia merkea baino ez dela uste dute elkarrizketatuek. “Kontua zera da, gizarateak bakarrik ez, legeak berak ere justifikatzen eta onartzen duela argudio hori; legea da gizaratearen isla eta alderantziz: arauak esaten dizutenean egindakoa gehiago barkatzen zaizula edanda zinelako, gizarateak horri erantzuten dio baita ere. Izugarriak dira zuriketa horiek, drogak tartean direlako dena libre balitz bezala”, salatu du Etxebarrietak.

Are gehiago, biktimia izan den emakumea bera izaten da sarri kritiken jomuga. Nagore Laffageren kasuan ere, krimen ikaragarria izan arren, hori du gogoan Asun Casasolak: “Hainbatek hala zioen, ea Nagore zergatik igo zen Yllanesen pisura, horrek hiltzeko eskubidea eman izan balio bezala mutilari! Beste pertsonaren askatasuna errespetatzen ez duenak du errua. Epaietara ere justizian erabateko konfiantza nuela joan nintzen, deklaratzera ateratzen ninduten arte. Herri epaimahaiak hiru galdera prestatu zituen epaileak niri egiteko; lehenengo biak ez zizkidan egin, gogorak iruditu zitzaizkiolako (auskalo zer galdetuko ote zuten...), eta hirugarrena bai, denetan leunena zela-eta: herri epaimahaiak jakin nahi zuen ea nire alaba oso mutilzalea (*“muy ligona”*) al zen. Orduantxe konturatu nintzen ez zegola zereginik. Nor ari ziren juzgatzeko? Epaimahaiak bederatzi lagunek osatzen zuten: gutxi gorabehera 23-39 urte arteko sei emakume eta hiru gizon, jende gaztea eta ikasia. Epaimahaiakideetako bati gero hedabideren batean entzun nion kontatzen, mutilari begiratu eta pena ematen ziola, zeinen gaizki ari zen pasatzen gizaioa... Eta nire alabak ez al zion penarik ematen? Irudiak geratu egin behar izan zituzten-eta epaietan, hain ziren bortitzak!”

Lehenengo eta bigarren mailako herritarrek daude, eta emakumeak bigarren mailako herritarrek dira, Etxebarrietak gaineratu duenez: “Normalizat jotzen da guri gauza jakin batzuk gertatzea edo gertatu ahal izatea, emakume jaio izate hutsagatik. Batzuetan badirudi emakume izanda kalean ordu txikitik nagoe-lako jasotako ordaina dela, egoera saihestea gure ardura dela. Oso ondo erakutsi digute

“Legeak esaten dizunean egindakoa gehiago barkatzen zaizula edanda zinelako, gizarateak horri erantzuten dio”

Oihana Etxebarrieta

non egon behar dugun eta non ez; gizarateak markatzen dizkigun lerroak oso barneratuta ditugu, eta lerro horiek zeharkatzeagatik kritikatu dugu neska. Baina errua inoiz ez da berea, inork ezin dio esan kale jakin batetik igaro delako gertatu zaiola hori. Errua da bortxatzen eta hiltzen duenarena, eta hala ere, oraindik barkamena eskatzen gu aritu behar, leku desegokitan egoteagatik edo dena delakoa egin izanagatik”.

Gezurra dirudien arren, oraindik ere “ez” esateak ezetz esan nahi duela errepikatu beharra dago. Eta ezetza gainera edozein unetan iritsi daitekeela: “Ni oso gustura egon naiteke musukatzen, eta une jakin batean gehiago nahi ez izatea erabaki dezaket. Horraino egin beharko du orduan besteak, ezetz erabakitze eskubidea duelako norberak, eta hori errespetatzeko betebeharrak besteak”, dio mugimendu feministako kideak.

Indarkeriaren espirala gustu txarreko adarjotzea onartzetik hasten da

Alabarena gertatu zenean, polizia kontatutakoarekin ikararaz gertatu zen Casasola, “hain zen astakeria Sanferminetan egunero zegoen bortxaketa kopurua”. Muturreko kasuekin asaldatzen garen arren, hain larriak ez diren eraso matxistak asko eta asko direla azpimarratu du, nahiz eta sarritan ezkutuan geratu, ez direlako salatzen ez azaleratzen. Etxebarrietaren hitzetan, “adarjotzea da lehenengo, ‘a ze titi ederrak!’, eta zuk pikutara bidaltzen dituzu eta *bordea* zarela erantzuten dizute, txantxa onartuta dagoelako; gero ipurdia ukituko dizute, buelta eman eta zerbait esaten diezu, baina barrez erantzuten dute, hori ere onartuta dagoelako; ondoren besotik fuertea helduko zaituzte; musukatzen behartuko... Biolentziaren gorpil bat da, txikitik handira doana. Nagoreri gertatutakoaren modukoak jaietan ematen diren tragediatzat hartzen ditugu, baina hasieratik onartzen badugu biolentziaren gorpil hori, azkenean halakoak gerta daitezke. Guztiz neutralizatuta gaude indarkeriaren aurrean, gertatzen diren gauza gehienak normalizat ditugu, baina ez, ez da normala entzun nahi ez duzun *piropo* nazkagarri bat botatzea norbaitek, edo ipurdia ukitzea... Ez dira txikikeriak eta jai giroan emakumeak edozein motatako erasoren jomuga izatea (eta gainera isilik onetsi behar izatea) ez da onargarria”.

“Herri epaimahaikideek (sei emakume eta hiru gizon, jende gaztea eta ikasia) galdetu zidaten ea nire alaba oso mutilzalea al zen”

Asun Casasola

adarjotzea da lehenengo, “a ze titi ederrak!”, eta zuk pikutara bidaltzen dituzu eta *bordea* zarela erantzuten dizute, txantxa onartuta dagoelako; gero ipurdia ukituko dizute, buelta eman eta zerbait esaten diezu, baina barrez erantzuten dute, hori ere onartuta dagoelako; ondoren besotik fuertea helduko zaituzte;

musukatzen behartuko... Biolentziaren gorpil bat da, txikitik handira doana. Nagoreri gertatutakoaren modukoak jaietan ematen diren tragediatzat hartzen ditugu, baina hasieratik onartzen badugu biolentziaren gorpil hori, azkenean halakoak gerta daitezke. Guztiz neutralizatuta gaude indarkeriaren aurrean, gertatzen diren gauza gehienak normalizat ditugu, baina ez, ez da normala entzun nahi ez duzun *piropo* nazkagarri bat botatzea norbaitek, edo ipurdia ukitzea... Ez dira txikikeriak eta jai giroan emakumeak edozein motatako erasoren jomuga izatea (eta gainera isilik onetsi behar izatea) ez da onargarria”.



Nagore Laffageri gertaturikoa ahanzturan ez erortzeko, aurten ere elkarretaratzea egingo dute Sanfermin bezperetan. Oraindik ere, "ez" esateak ezetz esan nahi duela errepikatu beharra dago, eta ezetza edozein unetan iritsi daitekeela.

Casasolaren borroka, eredu

"Munduan nago eta inguruan gertatzen dena ikusten dut. Nagorek eman didan oparia da mundua pixka bat gehiago ikusten dudala", adierazi du Asun Casasolak. Urtez urte, ikastetxe eta elkarte askotara bidaiatu du eta bidaiatzen jarraitzen du, Helena Tabernak zuzendutako *Nagore* dokumentala besapean. Gazte eta helduek gaiak gogoetatzeko eta eraso sexisten aurrean kontzientziatzeko modua dela dio, eta berarentzat ere terapeutikoa dela. Zuzeneko testigantza horren balio erantsia handia dela uste du Etxebarrietak. Irundarra da Casasola eta eskualde horretako Txingudi Anti Sexistarentzat inportantea izan da haren ibilbidea. "Hasi-berriak ginen Nagorerena gertatu zenean eta kasu berezia izan zen, tristea, baina berriz ere halakorik gerta ez dadin Asunek ondoren egindako lan guztia baliagarria izan da", dio Etxebarrietak. Plataforma feministak Asun Casasola ipuin lehiaketa sortu du aurten, *indarkeria matxistatik askeak diren bizitzak* gai harturik. "Asun, egoera oso gogor batetik, besteentzat oso positiboa den zer-bait egiten ari da, eta egoerari buelta emateko gaitasuna jarri dugu gai gisa ere, oinarritik buelta eman, hezkuntzatik... Gutxi batzuk aurkeztuko zirela uste genuen eta lehenengo edizio honetan ehundik gora ipuin jaso ditugu. Interesgarria izan da ikustea nola, gaia indarkeriatik aske diren bizitzak izan arren, ipuin gehienek indarkeria egoera bat irudika-

"Tabernako langileak musika jaitsi eta esan dezake ez duela ezer zerbitzatuko delako neska bakean utzi arte. Teknikak sortzen joatea da gakoa, eraso asko espazio irekietan gertatzen baitira"

Oihana Etxebarrieta

tu duten lehenik, eta gero azaldu dute egoera horretatik nola atera diren emakumeak. Alegia, oso zaila egiten zaigula indarkeriarik gabeko gizartea irudikatzea, hain dugu barneratua eta normalizatua biolentzia".

Zer egin... norberak, taldeak, erakundeek

Eraso matxisten aurrean, zer egin? Jarraibide zenbait proposatu dizkigu Oihana Etxebarrietak. Maila indibidualean, autodefentsa feminista tailerretan izena ematera animatu du: "Pare bat egin ditut eta beste modu batera ateratzen zara kalera, zure buruaz, mugez eta ahalmenez kontzienteago zara, egoera biolentoak gestionatzen ikasten duzu... Eta

ez da soilik arte martzialak lantzea, ahalduntze pertsonalerako teknika ere bada, zure gorputza eta zu zeu errespetatua izateko eskubidea duzula barneratzeko, ahotik kendu diguten 'ez' hitza lantzeko". Nesken lagun taldeek bestelako teknika eta kodi-goak sortzen dituztela dio (komunera binaka joatea, gustura ez nagoen girotik atera nazan lagunari modu jakinean begiratzea...), baina emakumeek hartu beharreko neurriez

gain, fokua gizonengan jarri beharko litzateke. Kanpaina dibertigarri bat ekarri du gogora, parrandara ateratzean emakumeek kontuan hartu beharreko hamar puntuei buelta eman eta gizonen kontuan hartu beharrekoak jasotzen dituen: "Lehenengo puntua, ez inor bortxatu; bigarren puntua, bortxatzeko gogoia badut, lagunari esango diot etxera era-

man nazala... eta abar, umoretsu, baina errealitate bat argi jartzen du mahai gainean: erasorik ez badago, erasotzailerik ez badago, biktimak ez du zertan neurririk hartu behar”.

Gizarteari dagokionez, denak gara gure inguruan gertatzen denaren erantzule. “Txiki-keriak diren ustea amaitu behar da. Isiltasunak konplize egiten zaitu eta ikusten baduzu eza-gun batek jarrera itsusia duela neska batekin, *baboso* bat delako edo errespetua galdu diolako, esku hartu behar duzu eta hala-kerik ez onartu. Isiltasunarekin, edo ‘edana dago’ gisako argudioekin, erasotzailea ari zara babesten; aldiz, biktimaren alde jartzen bazara, pertsona hori ahaldunduz ari zara, pertsona horrek erasotzaileari aurre egi-tea ahalbidetzen ari zara, bakarrik sentitzen bada eta babesik ez badu zaila izango duelako ezer egitea”.

Eskolek, udalek eta oro har instituzioek ere gizartea ahaldunduzera bideratu beharko litzu-kete ahaleginak, indarkeria erabiltzen dutenen aurrean kolektibo gisa ahaldunduzeko eta biktima ez izateko, isiltasunaren sare horretan ez erortzeko. Gaia lantzeko baliabide gehiago jar-tzea, kontzientziatuta dauden hezitzaileen alde

Emakumeek hartu beharreko neurriez gain, fokua gizonengan jarri beharko litzateke. Erasotzailerik ez badago, biktimak ez du zertan neurririk hartu

egitea, autodefentsa tailer gehiago eskaintzea edota arazoa modu transbertsalean lantzea litzateke bidea. Eta jaietan zehazki? “Jaietan, gure instituzioak tabernak dira, nolabait. Bada, tabernako langileekin aurretik gaia jorratu bada, langileak une jakin batean musika jaitsi dezake eta esan ez duela musika jarriko ez eta ezer zerbitzatuko barratik ikusten duen delako

neska bakean utzi arte. Teknikak sortzen joatea da gakoa, eraso asko espazio irekietan eta ikus-garrietan gertatzen baitira”, era-sook duten inpunitatearen adie-razgarri, bide batez.

Egia esan, mugimendu femi-nistaren eta herri ugaritako jai batzordeen lanari esker, gaiak gero eta presentzia handiagoa du gure inguruan eta kontzien-tziazio kanpainak, neurriak, protokoloak eta salaketak indarra hartzen ari dira. “Iazko San-ferminetan –azaldu du Etxebarrietak–, neska batek eskerrak eman zizkien peñei, jazartzen ari zitzaion mutil baten aurrean bere burua defendatu zuenean, peñek babestu egin zutela-ko. Instituzioek egiten ez duten lana egiten ari da mugimendu herritarra eta gero eta jende gehiagok argi du ez dituela eraso sexistak onartuko”. ■

Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ

15€
bidalketa barne
Euskal Herrian

Mundua ulertzeko
beste begirada bat,
ARGIAren eskutik.


argia

Egin ezazu eskaera:

☎ 943 371 545 | www.argia.eus/denda | denda@argia.eus



Etxe, eskola eta elkarreteetarako opari aproposa



MADDI SOROA

Baleren Bakaikoa Azurmendi



EHUKO

IRAKASLEA,

EKONOMIALARIA

Ongizate estatuaren eraldaketa

BIGARREN MUNDU GERRAREN ostean ongizate estatuak berebiziko garapena ezagutu zuen. Bazirudien txirotasuna eta familien estutasunak betirako desagertu zirela, baina bakarrik kapitalismoa garatutako herrialdeetan, hirugarren munduaz inor gutxi arduratzen baitzen. Beti bezala, gerraren zama langileriak eraman zuen eta kapitalistek etekina. Langileriaren presioari esker, balioaren zati handiago bat eskuratu ahal zezakeen langile klaseak, errentaren birbanaketa aurrerakorra burutu baitzen. Beraz, gastu sozialak gora egin zuen eta ongizatea gizarte osora heldu zen.

Azken berrogei urte honetan estatuen gastu soziala izugarri murriztu da eta ongizatea erabat ahuldu, klase txiroenak gorriak pasatu beharrera heldu arte, batik bat, orain bezalako krisialdi gogorrean. Errenta birbanatzen zuten zerga aurrerakorrekin atzerakada nabarmena izan dute eta aberatsak aberatsago bihurtu dira, txi-roak txi-roago bilakatu diren bitartean.

Filantropo horien arteko ezagunenetako bat Bill Gates da, munduko aberatsena, eta bi fundazio dauzka. Bi horiek 5.000 milioi dolar kudeatuko dituzte. Jasotzaileak: karitatea, bere unibertsitatea, bere herriko elkarteak eta abar. Eta ez da ahaztu behar inork ez dituela diru banatzaile horiek hautatu

Txirotasun pertsonalei eta herrialde atzeratuak "laguntzeko" helburuarekin filantropia antzeko enpresak azaldu dira, zenbait pertsona esanguratsuek dirutza kudeatzen dute, hau da, estatu demokratikoei dirua kudeatu ordez, norbanako aberatsek egingo dute. Bill Gates edo Warren Buffet bezalako aberatsek ordezkatuko dute estatu soziala. Gure artean hor daude BBVA fundazioa, Telefónica fundazioa, eta abar. Fundazio horiek ere estatuaren zeregin sozialetan parte hartuko dute.

Adibidez, AEBetan BPGren ehuneko 3ra heltzen da enpresa filantropikoei erabiltzen dutena, Frantziako Estatuan, ehuneko 0,2ra eta Kanadan ehuneko 0,5era. AEBetako enpresa horien diru iturrien ehuneko 72 norbanakoei ipintzen dute, ehuneko 12 fundazioei, ehuneko 5 enpresek eta gainontzeko herentzietatik dator.

Enpresa filantropiko horiek dirua biltzen dute zerbitzu publikoak eskaintzeko. Herriko eskola, haurtzaindegia, eta abar sortzeko. Batez beste, bildutako dirutzaren ehuneko 52 barne kudeaketarako da eta gainontzeko zerbitzua eskaintzeko. Horrek esan nahi du zerbitzu horiek pribatizatu egin direla eta pertsona filantropoen jaioterrietan, normalki, diru gehiago edukiko dute, eta ondorioz, zerbitzu hobek filantroporik ez dagoen herrietako zerbitzuekin alderatuta. Halaber, zerbitzuen kalitatea kaskarragoa izango da, profesionalen ordez boluntarioek parte hartzen baitute.

Bestalde, dirua ematen duten enpresek zerga gutxiago ordainduko dute eta aurpegia zuritu gainera. Aberatsei uzten zaie dirua kudeatzen, estatuak era berdintzaileagoan burutu ordez; filantropoen esku geratuko da ongizatea.

Filantropo horien arteko ezagunenetako bat Bill Gates da, munduko aberatsena, eta bi fundazio dauzka. Bi horiek 5.000 milioi dolar kudeatuko dituzte. Jasotzaileak: karitatea, bere unibertsitatea, bere herriko elkarteak eta abar. Eta ez da ahaztu behar inork ez dituela diru banatzaile horiek hautatu; hasteko eta behin, estatuaren gobernariak bozemaileek aukeratzen dituzte.

Halaber, herrialde atzeratuentzako "laguntzak" estatu garatuei ematen dituzte eta ustelkeria eta diktadore ugari profitatzen. Gaur egun, "laguntza" hori ere, hein batean fundazio boteretsu askok gauzatzen dute eta zenbait kasutan multinazionalen zerbitzurako. Dirudienez, Gates fundazioa Afrikako herrialde anitzetan transgenikoak sustatzen ari da, goseari aurre egiteko aitzakiarekin. Atal horretan ere estatua atzera egiten ari da, multinazionalen mesedetan. ■

mintza gaitezen klarki

Nafarroa
Estatu-aferra da

aferra dugu
Nafarroa
ESTATU



Jakes Bortairu

EUSKAL KONFEDERAZIOKO KIDEA ♦



DANI BLANCO

Hollande eta Euro-karta

FRANTZIAKO PRESIDENTEAK hizkuntza gutxituen aldeko Euro-karta berresteko engaiamendua errepikatu berri du, horretarako Frantziako Konstituzioa aldatzeko lege bat iragarritz. Arduradun politiko batzuk poztu badira ere, euskaltzaileen eta oro har lurralde hizkuntzen aldeko herri mugimenduen artean kezka eta zalantzak dira nagusi.

1992an onartu zen Europako Kontseiluko karta hori 1999an izenpetu zuen frantses gobernu sozialistak. Haatik, horren berrespena blokeatu izan zen, Konstituzioaren 2. artikulua argudiatuz: Errepublikako hizkuntza frantsesa da, hots, Errepublikaren batasuna zalantzan ematen zuelakoan. Geroztik, lurralde hizkuntzak defendatzen dituzten herri mugimenduek hamaika mobilizazio eta ekimen bururatu dituzte Euro-karta berretsia izan dadin. Lobby horren presiopean tendentzia guztietako buruzagi politiko gorenak alde agertu dira, sozialistak besteak beste. Konstituzioaren traba gaindiezina ontzat emanetz, Euro-kartaren truke hizkuntza lege bat hitzeman dute, Sarkozy horien artean. Alta, 2015ean, ez bata ez bestea ez dira oraindik gauzatuak. Konstituzio aldaketa prozedura pisua da: Gobernuak Konstituzio lege proiektu bat egin behar du. Nazio Biltzarrak eta Sena-

*Hauteskunde
Presidentzialak izan baino
urte eta erdi lehenago
oposizioari jarritako zepo
itxura du horrek: edo
onartzen du eta Hollanden
promesen bilana hobetzen
du edo blokeatzen du eta
aurpegia zuritzen dio
presidenteari*

tuak (eskuinaren esku gaur egun) termino berdinetan bozkatu behar dute. Ondotik bi asanbleak elkarturik, Kongresua bildu behar da eta Konstituzio aldaketa gehiengo kualifikatu batek onartu behar du (5etarik 3). Hauteskunde Presidentzialak izan baino urte eta erdi lehenago oposizioari jarritako zepo itxura du horrek:

edo onartzen du eta Hollanden promesen bilana hobetzen du, edo blokeatzen du eta aurpegia zuritzen dio presidenteari.

Zalantzak aparte, kezka ere badago. Alabaina, nehorik ez du ahantzi 2014ko urtarrilean, Hollanderen utzikeria ikusirik, diputatu sozialista batzuek Euro-karta berresteko lege proposamena aurkeztu eta gehiengo zabala lortzeko ondoko esaldia bozkatu zutela: “Frantsesaren erabilera zerbitzu publikoa betetzen duten pertsona pribatuei inposatua zaie,

baita herritar guztiei administrazio eta zerbitzu publikoekiko harremanetan ere”. 1992tik lurralde hizkuntzen garapenaren kontra Konstituzioaren 2. artikulua etengabe nola erabilia izan den ikusirik, ez da azitia izan behar esaldi hori gure hizkuntza bizitza publikotik baztertze baliatua izan dela aurreikusteko. Euro-karta baldintza horietan izenpeturik, benetako atzerapena litzateke. ■

DANI BLANCO



**Itxaro
Borda**



IDAZLEA

Aviron

TENPERATURA hozka gorenera hupatu zen BAB aldean duela aste pare bat. Alabaina, Aviron Bayonnais eta Biarritz Olympique rugby taldeen ezkontza egiaztatze orduek etorri zela erran zuten presidentee: diru gehiago, indar gehiago, irabazi gehiago. Eta marrubia zut: Baionak zurgatuko zituen Miarritzek, handinahiz, sorturiko zorrak.

Egoera idealari itzal egin zieten orde partzuer edo *socios* delakoen aburuek: hiri bietako oinarritzko sostengatzaileek ez zuten horrelako fusiorik begi onez ikusten. Baionan, milako batek manifestatu zuen Jean-René Etxegarai auzapezaren leiho

pean eta Jaun Merak zortzi egun eskatu zituen sakon hausnartzeko. Auzia trenkatzeko zaila zen. Bil Ta Garbikoek Hazketa-ko deskargaren urtebeteko luzamenaren erabakia errazago hartu zuketean.

Ustezko kirola eta balizko sos aipamenak saihestuz, istorio horretan gauza bat geratzen da argi, gainera eztabaidari kutsu unibertsala ematen diona: arduradunek eta sponsorrek ez dute jendearen iritziaz axola zipitzik, benetako demokrazia ukamenaren adibidea hedatzen zaigula egunkarietako lehen orrialdeetan.

Horretan datza larritasuna! ■



Joxerra Aizpurua

♦ INDUSTRIA INGENIARIA

Garoña versus Sestàs

ESPAINIAKO GOBERNUAK argi berdea eman zion Garoñako zentral nuklearra berrirekitzeari iragan den maiatzean. Urrats garrantzitsua da zentrala martxan jartzeko bidean, Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak baldintza teknikoak jarriko dituen arren, Nuclenor-ek, zentralaren jabeak alegia, artean, abiatzeko baimen politikoa lortu duelako.

Ia aldi berean, Bordeleko hegoaldean dagoen Sestàs hirian (Cestas, frantsesez) Europako eguzki zentral handienaren erdia eraiki dutela iragarri ziguten. 1.000.000 inguru eguzki zelulaz osaturiko guneak urrian behar du martxan eta Bordeleko biztanleriak kontsumitzen duen elektrizitatea ekoiztiko du.

Garoña Euskal Herriko hego-mendebaldean dago, Gasteizetik 40 km-ra. Sestàs, berriz, Baionatik gora, 150 km-ra. Biak ala biak energia elektrikoa ekoizteko badira ere, oso eredu desberdinak islatzen dituzte: Garoñakoak futbol zelai bat okupa-

tzen duen bitartean, Sestàsekoak 350 futbol zelai beteko ditu; Garoñakoak iraupen mugatua eta ondorio erradioaktiboak izango dituen bitartean, Sestàsekoak iraupen mugagabea eta hondakinik gabekoa behar du izan.

Bizitzen ari garen krisiaren irteeran omen gauden honetan, euskal herritarrok badugu nora begiratu: hegoalderantz zentral nuklearra ikusiko dugu eta iparralderantz, eguzki gutxiago izanik, eguzki zentrala. Biak gure eskuetatik at daude, baina garbi dago ekonomia eredu desberdinak ordezkatzeko dituztela. Energia lortzeko baliabide klasikoaren parametrotan murgilduz, Euskal Herrian aukera gutxi dugu nuklearretik eta karbono dioxidotik ihes egiteko, baina iparraldetik datorkigun ereduak gure herri eta hiritan egin dezakegunaren arrastoa ematen digu. Ez dut uste 350 futbol zelaiko eremua okupatu behar dugunik, baina zergatik ez hasi erakuntza bakoitzeko teilatuak, adibidez, eguzki energiaren hartzaile bilakatzen?

Ez da urtebetean egin daitekeen prozesua, baina bost edo hamar urteetan gure menpekotasun eta kontzientzia energetikoa goitik behera aldatzeko bidean lagun dezake, hondakinen alorrean gertatzen ari denaren antzera. Izan ere, energiaren metaketaren alorrean gertatzen ari den teknologi aurrerapena bidelagun izan dezakegu; horra hor Tesla enpresa estatubatuarrek asmatutako etxeetako energi biltzaileak edo ia gero eta maizago asmatzen diren materialak eguzki panelen efizientzia hobetzeko. ■

Bizitzen ari garen krisiaren irteeran omen gauden honetan, euskal herritarrok badugu nora begiratu: hegoalderantz zentral nuklearra ikusiko dugu eta iparralderantz, eguzki gutxiago izanik, eguzki zentrala. Biak gure eskuetatik at daude, baina garbi dago ekonomia eredu desberdinak ordezkatzeko dituztela



DENA PREST

Datorren ikasturterako testuliburuak eta ikasmateriala dagoeneko prest dituzu gure liburu-dendetan edo elkar.eus webgunean.

Etorri eta erreserba itzazu!

elkar



www.elkar.eus

ALGORTA · ARRASATE · BAIONA · BASAURI · BERGARA · BILBO · DONOSTIA · GASTEIZ · HERNANI · IRUN · IRUÑEA · TOLOSA

Joxerra Garzia ♦

IDAZLEA



DANI BLANCO

Nik eman ta zuk hartu?

PAREKOTASUNIK GABE ez dago harreman sanorik. Parekotasunak, ordea, ertz eta koska ugari ditu eta, denak behar bezala zaindu ezean, aise zapuztu, usteldu eta galtzen da.

Koskarik nabarmenena, ertzik zorrotzena, honako hau aitortzea da: gurekin hartu eta emanean dagoen hori ez dela guk ezagutzen diogun horretan agortzen, ez dagokigula guri haren izateari (eta garapenari) mugak ezartzea, norberaren mugak zein diren (eta zein ez diren) erabakitzeke eskubidea duela nor bakoitzak. Buruz buruko harremanetan, nahikoa da bietako batek besteari mugagabe izateko eskubide hori ukatzea, sanotik ustelera lerratu eta harremana menderakuntza bihur dadin.

Bestalde, hartu eta eman txandaka egin behar dira nahi-taez, harremana batentzat (menderatzailearentzat) *barrartua* eta bestearentzat (menderatuarentzat) *emanmana* izango ez bada.

Biko harreman desorekatuetan, menderatzailea neutro itxurak eginez agertzen da beti, bere buruarena ez ezik bestearenaren ordezkari natural gisa. Menderatua, aldiz, gutxiagotasun marka larrian irarrita, azpiratuaren estigma beti agerian eramatera kondenatuta dago.

Esparru batzuetan ez dakar horrek kalte handirik. Gramatikaren alorrean, esaterako, egungau bikoan *egun* da markatu gabeko osagaia, eta gau, berriz, markatua. Markatu gabeko elementuak bere baitan hartzen du bestea, baina alderantziz ez da hori gertatzen. Hala, norbaitek etxetik irten gabe zazpi egun daramala esaten badu, besterik gabe ulertzen dugu gauzez ere ez dela etxetik atera zazpi egun horietan. Zazpi gau etxetik irten gabe egon dela esanda, aldiz, nekez interpretatuko genuke egunez ere etxean egon dela bolada horretan.

Baina gauzak ez dira beti hain xalo eta kaltegabe. *Gizon-emakume* bikoan, esaterako, *gizon* da osagai neutroa, eta *emakume* markatua. *Gizonen* baitan dena sartzen da: gizonak eta emakumeak. *Emakumeren* baitan, aldiz, emakumeak baino ez. Hiztunon miserien ispilu gardena da sarri hizkuntza: gizonak gizateria ordezkatzten du; emakumeak, berriz, bere burua baino ez, eta hori ere ozta-ozta.

Estatuen eta haien baitako nazioen arteko harremana ere tankera horretakoa da, gure alboko bi estatu handi-mandien kasuan behintzat. *Espainia* edo *Frantzia* esanda, beste guztiak hor sartuta daude, euskaldun eta katalanak barne. Piper potoa bandera guztien bandera da, ikurriña eta senyera barne. Aldiz, ikurriña

ikurriña baino ez da, txikiegia da Espainiaren ikur izateko.

Boteredunak erabakitzen du, alor eta maila guztietan, zein diren osagai neutroak eta zein markatuak. Laranja bizidun bat, *Naranjito*, onartu beharra dago Espainia guztian, oso baitira espainiarrak mediterraneotarrak. Flamenkoa eta cante hondoan beltzak eta zuriak sartzen dira, hain dira unibertsalak. Bertsolaritza, aldiz, txokokeria txoro bat baino ez da, eta Xabier Lete, Laboa eta enparauak ez dira existitzen, ez baitira denonak. Billar jokoa bezalako kirol zaletsu eta ikusgarriarentzat bai, baina estropadentzat tarterik txikiena ere ez dute Frantziako eta Espainiako hedabideek. Euren baitan nahi eta maite gaituzte, ikusezin eta mutu.

Ohar berantiarra: irakur bedi artikulu hau Marsellesa edo Txunda-txunda entzunez eta ziztu bizian.

“*Allons, enfants de la Patrie!*” dio ereserkiak, gazteei Patriearen alde egin dezaten dei eginez.

Guk, Anjel Lertxundiren jolasa-

ri jarraiki, aski genuke komatxo bat erantsi eta “*Allons, enfants, de la Patrie!*” aldarrikatzea. Aberriaren alde, patriatik alde. ■



Antton Olariaga

ERDIKO KAIERA

MUSIKA ELEKTRONIKOA EUSKAL HERRIAN

Orain da zure garaia

Musika elektronikoak ez du bide erraza izan Euskal Rock Erradikalaren agintepeko lurrotan. Paradoxikoki, Europako hainbat herrialdetan musika alternatibotzat jo izan dena berandu eta bide komertzialetatik iritsi da hona. Aurreiritziek indar asko dute oraindik. Azken urteetan ordea, Euskal Herriko gune alternatiboetan bere tokia egiten hasia dela dirudi.

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |



Las Tea Party DJen saioa Donostiako Piraten La Flamenka gunean. Kosta baldin bazaio ere, musika elektronikoa ari da bidea egiten Euskal Herriko espazio alternatiboetan.

KORTATU, HERTZAINAK eta gisa bereko taldeek utzitako itzal luzeak punk rock kutsua eman dio urte luzez Euskal Herriko soinu bandari. Fenomeno horrek Euskal Rock Erradikalaren lurretan beste zenbait musika mota zokoratu eta baztertzea ere ekarri zuen ordea. Tartean, eta oso modu nabarmenean, musika elektronikoa. Horregatik, Europako hainbat herrialdetan izandako bilakaeraren oso bestelakoa izan du hemen: mantso eta gune alternatiboetatik urrun.

Fermin Etxegoien kazetariak gogoan du nola Joy Division eta New Order gisako post-punk taldeak hasi ziren soinu elektroniko edo sintetikoak erabiltzen, eta zirrara garri zitzaiola soinu hori; baita Alemanian sortutako beste joera elektroniko batzuk ere. Euskal Herriko musika “erresistentearekin” inongo loturarik izan ez zutela dio ordea; are, hortera datzat jotzen zirela saiakera horiek. “Kortaturen zaleen %99k ez zekien New Order zer zen, eta ez zitzaien interesatzen. Horrek ez du esan nahi New Order gustuko genuenok Kortatu apreziatzen ez genuenik”.

1990eko hamarkadan ordea, Valentziatik zetorren bakalaua iritsi zen Euskal Herriko lokal komertzialetara, baita ordura arte Euskal Rock Erradikala nagusi zen areto batzuetara ere. Etxegoienek dioenez, “punka entzuten zuen zenbaitek bat egin zuen musika horrekin, baina oro har gauez zebilen edonori gertatu zitzaion. Oso ludikoa eta erraza zen”.



Hemendik At! taldea izan zen euskaraz bakalaua egiten aitzindaria. Momentuan izan zuten harrera epela gorabehera, askok aitortzen diete gaur egun egindako ekarpena.

“Hemen alderantzizko ordenean iritsi dira eraginak: lehenengo bakalaua, gero musika elektronikoa eta orain post-punk taldeak ari dira sortzen”

Ion Andoni Del Amo

Alderantzizko norabidean

Alemanian eta Ingalaterran, azken honetan bereziki, oso naturala izan zen punketik hasi eta musika elektronikorainoko trantsizioa. Punketik post-punka etorri zen, bertatik technoa eta pixkanaka musika elektronikoa-ren gainontzeko bariazioak. Bariazio horietako bat da bakalaua, Espainiako ekialdean sortu zena. Hala dio gazteak, musika eta gatazka aztertu dituen Ion Andoni Del Amok, *Party & Borroka* izeneko tesian.

“Hemen, alderantzizko ordenean iritsi dira eraginak: lehenengo bakalaua, gero musika elektronikoa eta orain post-punk taldeak ari dira sortzen”.

Trantsizio natural horren faltak zaildu zuen punka eta musika elektronikoaren arteko harremana. “Hemen ia etsaituta zeuden bitartean, oso normala zen Londres edo Berlinen gune alternatibo berean egun batean technoa eta bestean punka entzutea”.

Bakalauak sortutako aurreiritziak

Bakalauaren iritsierarekin batera, gaur egun oraindik musika elektronikoari egozten zaizkion aurreiritzi andana sortu ziren, gaztetxe, txosnagune eta jaialdi alternatiboetan batez ere. Hiru azpimarratzen ditu ikerlari durangarrak. “Aurreiritzien artean jatorria zen nabarmena: espainoltzat jotzen zen. Baina drogekin eta klase pobreekin lotzen zen musika ere bazen”. Musika elektronikoari despolitizazioa ere aurpegiatzen zitzaion, festa borrokaren gainetik jartzea. Baina punk kontzertuetan ere festa eta neurrigabeko kontsumoa elementu garrantzitsuak zirela nabarmendu du Del Amok.

Posible da bakalaua gainontzeko musika elektronikoaren aurretik iristeak aurreiritziak indartu izana, Del Amoren ustez. “Hala ere, house, techno edo antzekoek ere ez zuten harrera onik izan espazio alternatiboetan”.

Hau ez da gure estiloa

Diskoteka komertzialen babesean kanpotik etorritako musika elektronikoak nolabaiteko ibilbidea egin bazuen ere, ekoizpena oso urria izan da Euskal Herrian. Trabak traba, 1990eko hamarkadan nabarmentzea lortu zuen Hemendik At! taldea izan zen aitzindaria. Eurodance izendatutakoaren bidetik, “euskal bakalau erradikala” egiten ahalegin du ziren, bertako punk-rockaren jarrera eta aldarrikapen bertsuak mantenduz. Ordurako bakalaua gainbeheran zela-eta, oso fenomeno isolatua izan zela dio Etxegoienek, baina denborak ematen duen distantziatik, meritua aitortzen dio taldeari: “Garai hartan

oso balorazio krudela egingo genuen ziur asko, baina orain sinpatia handiz ikusten ditut saiakera horiek”.

Zenbait sektorearen gutxiespena jasan zutela kontatu du Ion Andoni Del Amok ere: “Hau ez da gure estiloa” eta gisako oihuak entzuten omen ziren maiz txosnagune edo jaialdi alternatiboetan Hemendik At! jartzen zutenean. “Orain da zure garaia” kantatzen zuen orduan Hemendik-At!-ek, baina geroago heldu da euren lanaren onarpena. “Ia hogeitaz urteren ostean, gazteek ezagutu eta dantzatu egiten dituzte haien kantak, lehen baztertu egiten ziren toki beretan”.

Ari da zerbait aldatzen

Del Amok bere tesian bildutako datuen arabera, azken bost urteotan aldatzen ari da joera. Zenbait gaztetxe eta aretotan, lehen ez zuen presentzia hasi da izaten musika elektronikoa. Adibideak ez dira falta. 2013an, esaterako, Bergarako gaztetxean egin zuten Kogollos Party Krew DJ kolektiboak antolatutako Bergarako Elektronika Topaketa.

Durangoko Plateruena Kafe Antzokian aldiz, lau urtean 30 bider antolatu dute Gau Elektronikoa esaten diotena. Euskal Herria Zuzenean jaialdian DJek tokia dute 2010etik gutxienez, eta musika elektronikoa bere lekua dauka Ernai eta Aitzina gazte erakundeek antolatutako azken topaketetan ere. Paraleloki, El Txef-a, Patrol Destroyers eta Las Tea Party-en gisako proposamenek ere nolabaiteko sona lortu dute.

Las Tea Party DJak nonahi

Musika elektronikoa gune alternatiboan pixkanaka bidea egiten ari bada, aurrez aipatutako Las Tea Party DJ-en esker da, neurri handi batean. Lorea Argarate eta Eva Gutierrez bizkaitarrek osatutako bikotea makina bat jai herrikoi eta festetatik igaro da jada. “Leku askotan gure saioa izan da formatu hau programatzen zuten lehen aldia, eta askotan, beldurrez eta zer gertatuko zen ez zekitela hurbildu dira antolatzaileak guregana. Guk lasaitasun handiz erantzun izan diegu ongi joango zela, jendearen erantzuna ere kontuan hartzen dugula”. Horrela izan da: arrakasta handiz, orotariko plaza eta aretoak jarri dituzte dantzan.

Diotenez, musika elektronikoa “arrotza” izan da askorentzat Euskal Herrian, baina pixkanaka aurreiritziak alde batera geratzen ari direla nabari dute. Hemendik At!-en gisako proposamenekin alderatuz gero, eurek pintxatzen dituzten kantak ez daude aldarrikapen hitzez josita. Horrek ez du esan nahi irizpide ideologikorik ez darabiltenik: letra



Azken bost urteotan aldatzen ari da joera eta zenbait gaztetxe eta aretotan musika elektronikoa lehen ez zuen presentzia hartu du. Bergarako Elektronika Topaketa izan daiteke horren lekuko.

matxistak dituen elektrolatinoa, esaterako, baztertu egiten dute. “Guk, Moombah doinuak jartzen ditugu, eta sortzen ere bagabiltza. Antzeko erritmoak ditu baina ez daude komentario matxistez beteta”.

Biziraupenak behartuta?

Behinola Euskal Rock Erradikalaren erreinu izandako gune alternatiboak bestelako musika mota batzuei ateak ireki dizkiete azken urteotan. Baina zein da hori ahalbidetu duen testuingurua? Aldaketa politikoak bere eragina baduela dio Del Amok. “Orain eginkizun nagusia ez da erresistentzia eta borroka, jendea erakarri eta hegemonia lortzea baizik”. Horrek prozesua erraztu duela uste du, ez ordea motibo nagusia denik. Bere arabera, biziraun beharrari esker gauzatu da aldaketa. “Bilbon adibidez erabaki kontzientea izan zen musika komertziala txosnaguneetan sartzea, jende gehiago erakartzeko neurri gisa”.

Eta Bizkaiko hiriburuan hasitako joera Euskal Herri osora zabalduta dela dio Del Amok, eta astiroago, baina gauza bera gertatu dela musika elektronikoa ere. Zentzu horretan, deigarri egiten zaio errazago txertatu dela reggaetoiak bezalako musika komertziala, musika elektronika baino. “Oro har txosnagune eta gaztetxeak nahiko kontserbadoreak izan dira esperimendazio kulturalari dagokionez. Zirkuito alternatiboetan 20-25 urtez musika bera entzun da, eta hortik kanpo geratu den guztiak oso sarrera zaila izan du”. ■



OZAZEKO JEAN DE JAURGAIN (1842-1920) ikerlaria lehen aldiz mintzatu zen *Zuberoako Legenda Zenbait* liburuan belaunaldiz belaunaldi ahoz eta memoriaz transmititu kanta handiosaz. Bidenabar, historian eta heraldikan berezitu gizonak *Zazpiak Bat* armarrria asmatu zuen 1897an. Mauleko Sallaberri (1837-1903) idazleak ere abestia sartu zuen *Chants populaires du Pays Basque* obraren orrialdeetan 1870an. *Bereterretxen Kantorea* halatan XIX.

gizaldi bukaeran etzan zen paperean, hitzak eta musika partiturak ekarriz. Bigarren gerratik landako urteetan, Jon Mirande eta Martzelin Hegiaphal sohütarra ibili ziren kantorearen bertso ezezagunak biltzen Zuberoako bazter ezberdinetan. 1989an Villabonan Euskaltzaindiak antolatu aurreneko Herri Literatura jardunaldiak ardatz, Txomin Peillenek *Euskera* aldizkariaren 35. zenbakian publikatu artikulu interesgarri batean sartu zituen.

ERDIKO KAIERA



BERETERRETXEN KANTOREA

Habil, eraikan bizirik!

Atharratzen, eskuinera bihurtzean Alozetik hara, beste mundu batean urtzen gara. Mende urrunetako eresien lurraldean hain zuzen. Bosmendieta eta Ahüzki mendi tontorren maldan hedatzen da Bereterretxen Kantorea izeneko abestiko tragedia zilarraren itzala... Euskal artista entzutetsuenek airarazi dizkigute kopla hauek, Kalakan taldearen bertsio kasik raperoa dugula belarrian azken aldion.

| ITXARO BORDA |
IRUDIAK: AXPI



Mikel Laboak 1965an grabatu eta denon muinetan txertatu ziren Erdi Aro kutsuko melodia eta perpausak. Hargatik, pixka bat lehenago, Iruriko Etxahun idazleak pastoralak ondu zuen *Bereterretx* izenarekin 1958an, Ligin eta Maulen eman zena. Halaber, Pier Paul Berzaitz muskildiar sortzaileak oreka harrapatu eta 2005ean, Ligin bertan, *Bereterretx* berria eskaini zuen. Ekimen arrakastatsua.

Egundainokoan erabiltzen dira kanta horretako elementuak poesia eta izkribuetan, gaurko egoeren larritasunak azpimarratzeko, euskaldunok badugulako beti boterera iritsi aitunen seme gezurtiren bat salatzeke. *Parisen bizia naiz* lanean adibidez Koldo Izagirrek sortu *Dramatis Personae* poeman agertzen dira Jaun Kondea, Bereterretxe eta Marisantz lasterkaria... aldaera anitzetako obra aberatsa da, jakintsuek 1434 eta 1449 artean kokatzen duten testua:

**Krimena, politikoa zen baina
sineste herrikoiairen ildotik,
batzuek zioten amodio
debekatu baten istorioa zuela
kantoreak bihikatzen**

Jaun Kuntia berehala,
Traidore batek bezala:
Bereterretxe, haigü bortala:
ützüliren hiz berehala.

Basabürüko leku askotan kausitzen diren Buztanobia etxeak Zuberoako ohiko base-riak dira: ezkaratz zabalak, barroteekiko leiho hertsia eta gorakoiak, aberetegiak, arditegiak. Etxebarre eta Ligerako gurutze-unean, oroimenezko harri borobila dagoen tokian preseski, halako bat dago. Hemen azaltzen dena ordea Lakarrikoa da, Marisantzen anaia-
ren, hau da Bereterretxen osabaren egoitza. Larraineko Bereterretxen sendia ez zen nola-
nahikoa, ez omen zuten zorrik inori, Luku-
zeko printzeen agaramontar abarreko Maule-
ko Gaztelu Zainarekin zeuden harremanetan
eta neskato bat zuten zerbitzari.

Ahots sakon ikaratiz abestekoa den kanto-
reak Atharratze inguruetan gertatu herio bor-
titz eta iragarria kontatzen digu xeheki, medi-
terraneoaren ezpondetako *vendetta* odoltsuen
antzeko hilketa ankerra hots, Sizilian edo
Albaniako lehorretan bagina bezala. Beau-
montarren leinuko buruzagia zen Luis Leringo
Kondeak manatu zuen Bereterretxe zal-
dun agaramontarraren erailketa.

Euskal Herria, bataren ala bestearen alde
elkar borrokatzen zuten gerrazale bandatan
banatu zen. 1450eko urteetan zehar Leringo
jauna, Mauleko Gazteluaren jabe bilakatu zen.
Krimena, politikoa zen baina sineste herri-
koiairen ildotik, batzuek zioten amodio debe-
katu baten istorioa zuela kantoreak bihikatzen:



Lerinek eta Bereterretxek biek emazte bera,
hau da Margarita Ezpeldoi, maite zuten.

Bereterretxek bazekikeen Jaun Kondea
ikusten zuen ber, bereak egina zuela. Atxilotua
izan zenean amari atorra baten jostea otoiztu
zion, menturaz sekulakoa olerkiak ederki dion
eran. Atorraren gaia idazkia bukatzean berriz
jorratzen du narratzaileak erakusteko agara-
montar zainarta ez zela edonor:

Ama, indazüt atorra
Mentüraz sekulakoa!
Bizi denak oroit ükenen dü
Bazko gai-erdi ondua...

Bereterretxe gatibu hartu zuten Leringo
Kondearen soldaduek eta eskuak estekan era-
man gaez, arbola baten oinetan belaunikara-
ziz, Etxebarre eskualdean, ezpataz ehotzeko.
Poetaren trebeziari esker, labur eta on ari zela,
Bazko gauerdia ondoan agitutako guztiak iru-
dikatzin ahal ditugu, hitzek itxurak gorpuzten
dizkiguten neurrian: Bereterretxe ohean, nes-
katoarekin solasean, hiru dozena gizon arma-
tu hurbiltzen sumatzen ditugula, izua igotzen
nabaritzen dugu, etxearen setioa, Jaun Kuntia-
ren indar erakusketa ehun behi eta zezenaren
metaforaz baliatuz...

Ilargirik gabeko ilunpe dorpe hartan Zube-
roan jende anitzek laster egin zuen. Distan-
tziak handiak izan arren Bereterretxen amak
lehenik: kezka eta antsiaz itorik, Marisantz,
Andozeko ibarrean behera, Bosmendietan
gora, Larrainetik Lakarrira, Buztanobian fin-
katu bere anaia gazteari laguntza eskatzeko,

AUTOCARES
Aizpurua

IBILALDIAK
EZKONTZAK
ESKOLA
GARRAIOAK

denok lasai
eta seguru
guk gidatuz

943 36 32 90
www.autocares-aizpurua.es

Haltzak ez dü bihotzik?

Haiku japoniar baten maneran hasten da Bereterretxen Kantorea, haltzaren –natura– eta gaztanberaren –kultura, jendeek esnetik ateratzen dutena– metafora azkarra eta edonongo botereak –aitonen semeena- zalantzan jartzen dituen ebazpen praktikoa uztartuz:

**Haltzak ez dü bihotzik,
Ez gaztanberak hezürrik.
Ez nüan uste erraiten ziela
aitunen semek gezurrik.**

Martzelin Hegiaphalen irudiz, pastoral egile eta errejent zena, haltzaren bihotza aipatzea ez zen egokia, haltzak edozein zuhaitzen pare, bihotza bazeukalako eta naturari zein errimari zegokionez logikoagoa zen ezkürra hitza sartzea, honela kantatzeko:

**Haltzak eztü ezkürrik
Ez gaztanberak hezürrik;
E'nüan uste erraiten züela
aitunen semek gezurrik.**

debaldetan, hortik berehala, Maulera, gazteluko nagusiari semeaz galdezka ernatzeko. Irri karkara trufariaz ihardetsi zion:

Hik bahiena semerik
Bereterretxez besterik?
Ezpeldoi altian dün hilik;
habil, eraikan bizirik...

Laster egin zuketan berdinki jaun Kondeak eta haren milizietako soldadu basati ugariak: Larrainetik Ligiraino bideratu ziren, ibilera zalapartatsuan, Bereterretxe zaramatela. Presoak buneta zuen buruan eta besomuturrak trinko, une batean txapela erori zitzaionean ezin zuela eskurik behera aitor-tzen duelako. Basabürüa orduan izuaz hormatua imajina dezakegu, soldaduen burdin hotsak, garrasiak, oihuak, zakur zaunkak... Heltü nintzan Ligira,
Buneta erori lürrera,
Buneta erori lürrera eta eskurik ezin behera.
Heltü nintzan Ezpeldoira,
Han haritx bati esteki,
Han haritx bati esteki eta bizia zeitan idoki.

Lasterrez higatu zen hondarrik Margarita Ezpeldoi gaizoa. Mendekua oroimenean ahalik eraginkorrena suertatzeko, Leringo Kondeak Bereterretxe erail zuen bere andre-gaiaren etxe saihetsean. Alta” hauek hila hain hüllan üken eta” deus ere ez zekiten. Eresiaren buruko bi kopletan Margarita datza, zorigaitzak leherturik, errautsirik, Bereterretxan odola ahürzka biltzen, ero-

tzen, maitasun seinalez Ezpeldoian zituzten Larraineko jaunaren hiru dozena atorrez бүkhata egiten.

Ezpeldoiko jenteak,
Ala sendimentü gabeak!
Hila hain hüllan üken-eta
deüsere ez zakienak!
Ezpeldoiko alaba
Margarita deitzen da:
Bereterretxan odoletik
ahürka biltzen ari da.


Ezpeldoiko bukata,
Ala bukata ederra!
Bereterretxan atorretarik
hirur dozena ümen da.

Bereterretxan hilketak garai hartako zuberotarren garunak inarrosi zituen, aditzen dugunean ukitzen gaituen bezalaxe. Bertsolaria, trebea noski, istorio latzeko hiru pertsonaia nagusien ikuspuntutik ari zaigu, bakoitzaren sentimenduak eta bizipenak zehazki eskainiz. Ohargarria da toka-noka moduaren erabilpen distiratsua, tragedia epikoarekiko gure hurbiltasuna baimenduz. Gertakaria molde eliptikoan oparitzen digu, poetikotasun goreneko baliabideekin, memorian betirako finkatzeko gisa eta emaitza lortu zuen. Hitzez haragoko lekukotasuna dago ikusgai Ligin Bosmendietarako norabidean: Bereterretxe ehortzi zuten lur pezan miretsi daiteke harri borobil hura, sekula ez dezagun ahantz.

Marisantzen lasterrak etenik ez du. ■

Literatura

Hain gutun luzea
Mariama Bâ
Itzulpena: Iokin Otaegi
EDO!, 2015



Irakurle maitea

JOSUNE MUÑOZEK hitzostean dioen bezala, Afrika-ko literatura euskaraz irakurtzeko aukera gutxi izan dugu orain arte, eta hori aldatzera dator Iokin Otaegiren itzulpenari eta EDO! argitaletxearen ekimenari esker dugun Mariama Bâ-ren *Hain gutun luzea*. Nobela 27 ataleko gutun gisa dago egituratua. Ramatulaye-k bere lagun Aissatou-ri gutun bat idazten dio senarraz alargundu eta gero etxean pasa behar dituen berrogei dolu-egunetan. Bertan bien bizitzaren gorabeherak aletuko ditu, deskolonizazio ostean aldaketa garaiko zurrumbiloan dauden bi emakume senegaldarren kronika eginez.

Gutunaren formatuak partikularretik kolektibora salto egiten utziko dio: bi lagunen eskola garaitik irakasle lanbidera, ezkontzatik seme-alabak izatera, eta jasandako poligamiatik honi aurre egiteko modu desberdinetara garamatza. Muñozen arabera, narra-tzaileak “bere barrua hustuko du” pertsonaetik politikorako bidea eginez eta bikotea, familia eta nazioaren arteko loturak josiz.

Lehen emakume aurrerakoi hauek Afrika berriaren ordezkariak dira: “Gure belaunaldiaren pribilegioa izan dun bi garai historikoren arteko giltzarri gertatzea; mendetasunarena bata, independentzia-rena bestea”. Oso kontziente dira haien belaunaldiaren ardura soziopolitikoaz, eta sozialismoa eta feminismoa dituzte aldaketarako ardatz nagusi: “Mundua astintzen ari ditun emakumearen askapenari buruzko ur-biziek, eta ez naiten ezaxola uzten”. Hala ere, badakite zuriengandik jasotako guztia ez dela urrea eta bi suren artean dabilzala dantzan: “Kanpotik ekarritako grina gaiztoen eta bertute zaharren erresistentzia itsuaren artean, bere oinarri sakonetan astindua dagoen gizartea” baita bizi dutena.

Pentsamolde tradizionala eta modernoa haragiztatzen dira pertsonaia desberdinetan: Farmata da antagonista, Ramatulaye-k adinkide duen auzokoa, “haren egia ezin zunan nirea izan” diosku une batean protagonistak, bien arteko mentalitate desberdinak islatuz. Poligamia da sakonen jorratzen duen gaia, “kontzientziaren zama gertatu diren era-



Edo! argitaletxeko kideak *Hain gutun luzearen* aurkezpenean.

gozpenak, gezurrak eta bidegabekeriak” direlako honen ondorio lazarriak eta miseria edo bakardadea besterik ez duelako ekartzen bere hitzetan.

Amatasuna eta belaunaldi berriak ere oso presente ditu. Horrela definitzen du lehena: “Ama gaitun azaldu ezina ulertzeko... uholdeari aurre egiteko”. Bere hamabi seme-alabak belaunaldi berriak irudikatzen baliatzen dira: “Nik amets egiten dudan bikotearen irudia dun” dio bere alaba nagusia den Daba eta bere bikoteari buruz hitz egitean. Honen adimena eta argitasuna harrigarri eta pozgarri gertatzen zaizkio: “Guztiz ematen zinan arrazoia ume honek”.

Azkenik, maitasuna eta adiskidetasuna dira bere bizitzaren zutabe nagusiak, eta nahiz eta maitasuna “bizitzaren ahogozoa eta gatza” dela esan, “adiskidetasunak badin maiteminak ezagutzen ez duen handitasuna” dio. Aissatou-rekin duen adiskidetasunaren seinale da noka hitz egiten diola, itzultzaileari eskertzen dioguna. Emakume idazle afrikarren literatura ezagutzen jarraitzeko gogoia piztu zaigunez, Muñozen gomendioari jarraituko diogu Ken Bugul eta Fatou Diome-ren lanak bilatuz. Auskalo, agian egunen batean, hauek ere euskaraz egongo diren esperantzarekin. ■

Amaia Alvarez Uria

Berezitasunetik maisu-lan klasikoetara

HALAXE sailka genezake Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren denboraldi honetako azken aurreko saioa. Gutuziek eta betiko pisuzko obrek, ondo nahastu eta dosifikaturik, egitarau orekatu eta gustagarria osatu zuten. Horrez gain, Elisabeth Leonskajak, aurtengo artista gonbidatuak, berme nahikoa eman zuen jakiteko alde aurretik saio hau ez zela txantxetako izango. Eta ez zigun hutsik egin.

Hasteko, sarrera gisa, *delicatessen* hutsa: Arvo Pärt konpositore estoniarraren *Fratres* izeneko obra laburra, non aurki daitekeen bere konposizio estilo partikularra, berak asmatutakoa, *tintinnabuli* izeneko, minimalista, adierazkorra, baketsua. Boreyko zuzendariaren ulermen sakona begi-bistan geratu zen, benetan iritsi baitzitzaion publikoari lanaren mamia.

Ondoren, kontzertuaren erregina iritsi zen taula gainera. Leonskaja andreak ez ditu betiko irakurketak egiten obra famatuenekin. Ezta pentsatu ere. Aldi honetan, mila aldiz entzun dugun Schumann-en *La minorreko op. 54 piano eta orkestrarako kontzertua* desberdina iruditzen zitzaigun. Desberdina eta arraroa, nahiz eta ederra. Baina Leonskajak eman zion garraztasun puntu ilun bat, batez ere lehenengo mugimenduari, eta horrek deserosotasun pittin bat sentiarazi zigun. Pedal justua, gutxi, soinu lehorra, beraz, oso azentu markatuak, eta noizean behin pasarte benetan ameslariak, gozoak... horrek guztiak bertsio bitxia egin zuen, eta, esan bezala, ohiko bideetatik ateratzen zena. Bis bezala, Beethoven delikatu eta aldi berean irmo bat oparitu zigun.

Saioaren bigarren zatia irekitzeko, Bachen koral ederrenetako bat, *Wachet auf, ruft uns die Stimme* (Esnatu, esaten digu ahotsak), Granville Bantock-ek orkestrarako moldatua, primerako sarreratxoa izan zen Paul Hindemith-en *Mathis pintorea* sinfonia dasatzeko. Artisten isolamendua irudikatu nahi izan zuen Hindemith-ek obra honekin, eta aitzakia gisa



Leonskajak ez ditu ohiko irakurketak egiten obra famatuekin.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.

Zuzendaria: Andrey Boreyko. **Bakarlaria:**

Elisabeth Leonskaja (pianoa). **Egitaraua:** Pärt, Schumann, Bach eta Hindemith-en obrak.

Lekua: Gasteizko Principal Antzokia.

Data: maiatzaren 25a.

hartu zuen XV. mendean bizi izan zen Mathis Grünewald margolaria, askatasun artistikoa aldarrikatu baitzuen bere garaian. Interpretazio ederra egin zuten Euskadiko Orkestrakoe. Azpimarragarria izan zen hirugarren mugimendua, *San Antonioren tentaldiak*, handientsu eta benetan ondo eraikia. ■

Montserrat Auzmendi



Ekitaldi kulturalak,
festak eta antzeko ekitaldietan musika jartzailea...

tickelsound@yahoo.es / ☎ 629 005 578



INAKIBEREZIARTUA
Enbalaiek • Biltegiatzea eta Logistika • Zerra eta eraikuntza



25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 • HERNANI • (Gipuzkoa) • ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com • mjm@inakibereziartua.com



Euskal Herria ezagutuz

OTXANDIO (BIZKAIA)

Natura biziaren erdian

Gorbeia eta Anboto artean, naturaz inguraturik dago Otxandio. Ez da herri handia, baina bizitza sozial handia du. Historiaz betetakoa ere bada; antzinako ardo eta arrain saltzaileen geralekua izandakoak 1936ko gerran Iberiar penintsulako gizarte zibilaren kontrako lehen bonbardaketa jasan zuen, herriko jaietan. Naturaz, kulturaz, historiaz, eta bertako jendeaz asko dago ikasteko. Irakasleak, otxandiarrek eurak.

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |

HERRI TXIKIA da Otxandio; 1.300 biztanlekoa. Baina, txikia izanda ere, bizitza sozial eta kultural handikoa da, eta asteburuetan beti egoten da zer edo zer kalean: taberna giro alaia kale nagusian, eta jan-edanerako hainbat aukera bertako ostatueta. Elkarrekin betidanik izan dute lan boluntariorako eta auzolanerako joera handia. Horri eutsiz, Otxandiok zer eskaini dezakeen ikusi, eta elkarrekin eskaintza hori egiten hasi dira turismo arloan, kirol arloan eta nekazaritzan lan egiten duten herritarrek.

Basoetan barrena

Baso eta mendi ibilbide ugari daude Otxandion. Anboto aldera edo Gorbeia aldera jota, oinez zein bizikletaz egin daitezkeen ibilbideak daude. GR 98 edo “Ardoaren eta arrainaren ibilbidea” ere bertatik pasatzen da. Ibilbide hori Oionen hasi eta Bermeon eta Lekeition amaitzen da. Izenak dioten bezala, arrain saltzaileek hegoalderantz joateko erabiltzen zuten, eta ardo saltzaileek iparralderantz joateko. Legutiotik eta Urkiolatik pasatzen da bidea, eta tartean, zelan ez, Otxandiotik. Gure

txangoaren beste helburu bat Legutiotiko urtegiaren hasierara joatea ere izan daiteke. Mekoleta auzo ederretik pauso batera dago.

Bizikleta-poteoa

Norberak bidexka bat hartu eta parajeotan galtzea izan daiteke aukera bat, eta bestea gidariarekin joatea. Otxandio inguruko ibilbideak ederto ezagutzen dituzte Biciguneko lagunek. Bizikletak alokatzeko eta konpontzeko lekua da Bicigune, eta BTT irteerak eta bizikleta-poteoak ere antolatzen dituzte.

Oleta auzotik gertu –Aramaion dago Oleta, baina Otxandiotik kilometro bira–, harizti baten ertzean Hontza Extrem abentura parkea zabaldu zuten duela pare bat urte Otxandioko gazte batzuek. Gazte-txoentzako zein helduentzako probak dituzte bertan: zuhaitzetako ibilbidea, arku-tiroa, zuhaitzetako eskalada... Familia eta kuadrilla giro-rako leku txukuna da.

Artzainengandik ikasten

Gaztagintzaz ikasteko aukera ere badago Otxandion. Herrigunetik nahiko gertu, hiru gaztandegi daude. Oletan Maider Unda borrokalariak egiten du gazta, Kerexara auzoan Felix eta Martin Ajuria anaiek, eta Mekoletan Aitor Padi-

Oriol mendia, Aramaioko Oleta auzotik gora.

PAULO ETXEBERRIA





ASIER SARASUA GARMENDIA- CC BY SA



BIRKENWALD

Lerro hauen gainean, Vulcano jainkoaren omenezko iturria. Goian, plaza nagusiaren irudi panoramikoa.

Ilak. Lau artzain horiek gazta zelan egiten duten erakusteko jendea hartzten dute, eta prozesua ikusi ostean, gazta-dastatzek ere antolatzen dituzte.

36ko bonbardaketa gogoan

Otxandioko herriguneak xarma berezia dauka, eta kale nagusian bertan, Artekalen, herriko historiari buruzko hainbat kontu ikas daitezke. Koikili Lertxundi futbolari eta historialariak saio batzuk egin ditu bisita gidatuak egiten, eta azaldu duenez, orduak eman daitezke herriko historiari buruz berba egiten. Aterpetxea zabaldu zuen duela urtebete Lertxundik, eta herriko bi landetxetako kideekin eta hainbat herri-tarrek batera, turismo eskaintza aktiboa eskaintzeko lanean dabil.

Lertxundik Andikona plazan hasi izan ditu bisitak. Sinbolismo handiko plaza da, 1936ko uztailaren 22an bonbardatu baitzuten, Santamña jaietan. Iberiar penintsulan gizarte zibilaren kontra egindako lehen bonbardaketa izan zen hura, eta 57 pertsona hil ziren. Erasoan hildako guztien oroimenez, Nestor Basterretxeak egindako monumentua dago plazan, eta plaka handi bat, izen-abizenekin.

Burdingile herria

Plaza nagusia ere esanguratsua da. Handiegia eman dezake hain herri

txikirako, baina kontuan izan behar da Otxandio leku estrategikoan dagoela. Merkatarari askoren galekua izan zen ardo eta arrainaren ibilbidean; herriko sarreran aduana ere izan zuten. Plazak badu beste berezitasun bat: Vulcanoren iturria. Suaren jainkoa da Vulcano, eta Otxandion burdingintzak izan duen tradizioagatik, herrian ohorezko lekua du. XVIII. mendean, iltze eta ferrak ekoizteko 80 sutegi zeuden Otxandion, eta sarrailetarako beste bi. Esan ohi denez, Kolonen itsasontziek Otxandioko iltzeak zeuzkaten.

Vulcanoren iturriko ura ez dago tratatuta, eta burdin asko dauka: "Horregatik gara otxandiarrek hain indartsuak", dio brometan Koikili Lertxundik. Ez dakigu indartsuak diren, baina bai naturzaleak eta abegikorrek direla. Bisitatzeko leku ederra egiten dute Otxandio otxandiarrek eurek. ■




Bisitatu
Ihesi.com,
aisialdirako
webgune
parte-hartzailea.

Otxandioko
ho
herri-ola
bizitza kalitatea helburu



Gurutzegrama



EUSKALDUNA-CC BY

Sudokuak

Erraza

	4			2	9	5		6
		1	5		7	2	3	4
		3		4				9
	6	7	9	1	2		4	5
		9				3		
8	1		4	6	3	9	7	
5				7		1		
9	8	2	1		6	4		
1		4	8	9			2	

Zaila

		2		8	6	5		
		6			7			
5								9
				2	6			1
6								7
2		1	5					
1								8
			1			3		
		3	4	2		7		

Ezker-eskuin:


1. Gatazka, borroka. Hitz egiteko gai den hegaztia. 2. Oroitzapen, oroipen. Euskal fonema. 3. Garoa, iratzeta. Erlijio katolikoan, meza emateko esku duena. 4. Larruazaleko gorriune bizi. Musika estilo. 5. Azken bokala errepikatua. Koalizio politiko abertzalea. Benetan. 6. Hizketan, berbetan. Hizkuntza baten deskribapena. 7. Sabelaren hotsen onomatopeia. Literatura. 8. Aranondoaren fruitu. Noizean behin (bi hitz).

Goitik behera:

1. **Argazkiko herria**. 2. Nafarroako udalerria. 3. Ordaindu gabe. Euskararen Gaitasun Agiria. 4. Azken eta hirugarren bokalak. Osagai bakarra duena. 5. Hots arin. 6. Burua enberrari lotzen zaion gorputzaren zatia. Garen hauek. 7. Egokia. Gabi handi. 8. Nafarroako herria. 9. Otarre mota, saskia. 10. Pasatu (alderantziz). Une larri. 11. Baleuka. 12. Etenaldi. 13. Ene. 14. Akordio baten agiria. 15. Jagora.

Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

Izatea	I Z A N A
Herri, aberri	
Lantza txiki	
Azalekoa ez dena	
Jakina	
Erraz sutzen dena	
Arretaz begiratu	
Thintzailu	
Zama	
Itsas arraina	
Errua	
Eserleku	
Azeria	L U K I A

Soluzioak

1	7	4	8	9	5	6	2	3
9	8	2	1	3	6	4	5	7
5	3	6	2	7	4	1	9	8
8	1	5	4	6	3	9	7	2
4	2	9	7	5	8	3	6	1
3	6	7	9	1	2	8	4	5
2	5	3	6	4	1	7	8	9
6	9	1	5	8	7	2	3	4
7	4	8	3	2	9	5	1	6

Erraza

8	9	3	4	2	5	7	1	6
7	6	4	1	9	8	3	2	5
1	2	5	6	7	3	9	4	8
2	7	1	5	6	9	4	8	3
3	5	8	7	4	2	6	9	1
6	4	8	3	1	2	5	7	9
5	3	7	2	1	4	8	6	9
4	8	6	9	5	7	1	3	2
9	1	2	3	8	6	5	7	4

Zaila

Ezker-eskuin: 1. Gudu, Loroa. 2. Oromen, Ts. Benaz. 6. Eliza, Gramatika. 7. Gurgur, Elert. 8. Aran, Urcan-urcan. **Goitik behera:** 1. Goizuetan. 2. Urtaul. 3. Doan, Ega. 4. Uti, Bakun. 5. Marmar. 6. Lepoa, Gu. 7. Ona, Igun. 8. Irure. 9. Otzara. 10. Asp. Men. 11. Balu. 12. Eten. 13. Nire. 14. Akia. 15. Zain.

Alergia eta intolerantzia, nola bereizi?


JAN ONDOREN urdaileko molestiak edo ezpainak “puztuta” sentitzen badituzu, litekeena da zure gorputzak janariaren bat errefusatzeari. Horren arrazoia ahalik eta lasterren jakitea komeni zaizu.

Ez dakigu oso ondo zergatik, baina azken urteotan gero eta pertsona gehiagok jotzen dute medikuarengana zerbait jan ondoren kontrako erreakzioren bat jasan dutelako. Gehienek alergikoak direla uste dute, baina askotan intolerantzia edo jasanetasuna besterik ez dute. Horregatik, batzuen eta besteen arteko desberdintasunak argi izatea komeni da: alergiak sistema immunitarioaren erreakzio bat eragiten du janari horren kontra; intolerantziak, berriz, alterazio metabolikoak eragiten ditu, janarietako zenbait elikagaiaren digestioa, asimilazioa eta aprobetxamendua ezinezko bihurtzen dutenak.

Sintoma diferenteak

Kasu batzuetan alergiak eta intolerantziak bereiztea eta diagnostikatzeari zaila izan daitekeen arren, eragindako sintomei erreparatzea izaten da bi trastorno horien artean bereizteko modurik errazena:

- **Intolerantziaren**, zalanztazko janariaren eta horrek eragiten dituen efektuen arteko erlazioa ez da beti argia izaten, baina elikagai jakin bat hartu ondoren beti urdaileko molestiak (digestio pisuak eta nekezak, bihotzerrea), gasak edo haizeak, sabel puztua edo hesteetako alterazioak (beherakoak edo idorreria larria) agertzen badira, intolerantzia egon daitekeela susmatu beharko dugu. Batzuetan, intolerantziak nekea ere eragin dezake, eta pertsonak pisua galdu nahi duen arren, ahalegin hori ezinezko bihurtu



Elikagai jakin bat hartu ondoren beti urdaileko molestiak agertzen badira, intolerantzia egon daitekeela susmatu beharko dugu.

tuko da behin baino gehiagotan. Intolerantziarik ezagunenak eta usuenak hauek dira: glutenarena (horren ondorioz sortzen den gaixotasunari zeliakia esaten zaio), laktoarena (pertsonak ez du jasaten esnean dagoen azukrea), eta fruktosarena (fruituetan dagoen azukrea).

- **Janari-alergietan** agertzen diren sintomak apur bat diferentek dira: ezpainak puztu egiten dira, baita aurpegia edo eztarria ere, gorriuneak agertzen dira larruazalean, akne moduko pikorrak, arnas molestiak (eztula, doministikuak, arnasteko zailtasuna...). Alergia intolerantzia baino larriagoa izan daiteke, eta horregatik, hura eragiten digun janaria identifikatu ondoren, alergenoren kontsumoa uztea da irtenbiderik onena, aldi berean janari horren faltak ekar ditzakeen nutrizio-gabeziak kontrolatuz. Medikuek emango dizkigu beti jan-neurria orekatzeko jarraibide egokiak.

Zer egin daiteke?

Molestien jatorria argitzeko, probarik usuena eta eraginkorrena odol-analisia da, baina zenbaitetan medikuak proba alergikoak egitea erabaki dezake: bizkarrean edo besoan partxe moduko batzuk jartzen zaizkio gaixoari, edo elikagai “susmagarria” ematen zaio, behar bezalako kontrol medikuarekin noski.

Nolanahi ere, gaixok espezialistaren lana erraztuko duten neurriak har ditzake: molestiak jasan baino lehenago zer jan duen edo molestia horiek zer ordutan agertzen diren idaztea ideia ona izan daiteke.

Bestetik, janari batek mesede baino kalte gehiago eragiten dizun susmoa baduzu, elikadura aldatzea komeni da, sintomen eta janari zehatz horren arteko erlazioa benetan existitzen den ikusteko. Informazio horrekin espezialistarentzat askoz ere errazagoa izango da diagnostikoa eta jarraipena egitea. ■

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

3 edo 4, zenbat mutur?

PIPER SASOIA abiatu da. Gaur egun urte osoan ditugu piperrak, baina piper sasoia abiatu da, hemen. Bertako piperren sasoia. Ameriketarik ekarri genuen jaki hori, eta gure kulturako ikurretako bat bihurtua dugu, eta hasiera besterik ez da. Urtetik urtera, aldaera eta mota berriak ikusten dira azoketan. Gaurtxe bertan, Gernikako asteleheneroko azokan, ARGIAko lagunekin gure liburu berria aurkezttera joan eta mahaia apaintzeko barazki batzuk erosteko aitzakian, bertako tratulariekin hitz egitera joan naiz. Lehenengo tomateak, ondoren indaba beltzak, tipula zuri eta gorri ederrak, baba klase ezezagun bat eta piperrak erosi ditut. Gernikako piperrak, piperminak eta pipermin beltzak.

Arratzuko emakume pinpirin bati hartu dizkiot piper beltz horiek. Sekula ikusi gabekoak. Begiak laster harrapatu dizkit saskikada piper ilunak. Lehenengo galdera, ea minak diren. Pittin bat. Pipermin horiak ez direla minak eta horiek, ilun horiek baietz, pittin bat. Libra bat inguruko saskikada jartzeko esan diot. Minzale amorratua naiz. Gero eta gehiago. Zahar-

dadearen definizio polita da: gero eta jaki minagoak, beroagoak, mikatzagoak gustuko. Aho sabaia sorgortzen, nonbait, eta lehen antzeko emozioa sentitzeko jaki eta edari azkarragoak zakarragoak bortitzagoak behar. Gernikako azokako salgunera bueltatuta, ezagutu gabeko piperrak ikustearen txoramenarekin, zeharo ahaztu Arratzuko tratulariari izena eta zein baserritakoa den galdetzea! Gainontzeko barazkiekin batera, dotore apaindu dute mahaia, liburu bera baino ikusgarriago. Piper berri horiek topatu izanaren emozioarekin aurkeztu diet liburua bertaratu direnei. Orain, etxean, hau idazten ari naizela, ezin gehiago eutsi eta afari mokadua prestatzera noa, ea zenbaterainoko mina den pittin hori! Laster esango dizuet.

Hemen naiz mahaitik bueltan. Arratzuko pipermin beltzen mina bada pittin bat, baita bi pittin ere. Ahoa berotzen dute; ez, ordea, negarra eragiteraino, ezta gutxiagorik ere. Kontuan hartzeko eta



JAKOBA ERREKONDO

etxekotzeko moduko aldaera horietakoa da. Ea hurrengoan ale handiren bat baduen salgai eta hazi helduak jasotzeko modua egiten dugun.

Lehenengo piper horiek negutegietakoak dira. Batzuk hidropo- nikoak ere izango dira: lurrik gabe, plastiko koxkor artean landatu eta elikagaiak uretan nahasirik emanda hazten direnak. Bitartean landatu berriak dira kanpo libreko piperrak. Uda eta udazkena gozatu digutenak. Gozatu, gozatu, hiru punta dituzten piperrak, gordinik ere jateko modukoak direnak. Lau punta dituztenak zakarragoak eta mikatzagoak dira, eginda jateko hobeak... ■

Porrua

PORRUA landatzeko garaia da. Ekainean eta uztailan jartzen dira negu osorako izango diren porruak. Landarea zientoka saltzen da, eta mardul askoak azaltzen hasi dira azoketan. Landatuko dugun porru horien are- rio latzena harra da. Tximeleta batek jartzen dion arrautzatik sortuko den harra. Hari aurre egiteko, landarea etxera ekartzen dugunean, utzi lehortzen egun pare batez landatu aurretik. Pixka bat sufrituko du, baina arrautza edo hartxoak badakar, hil egingo da. Landatutakoan hosto muturrek lurra ukituko badute, moztu. Indar handiagoz itsatsi eta etortzen direla esanez, bada sus- traiak ere moztzen dizkionik. ■



JAKOBA ERREKONDO

Gernikako azokan genero preziatua

ASTELEHENEKO AZOKAN (ekainaren 6an), Trazola sagardoaz, Eguzki Borda gaztaz eta trikitiaz egin genuen aurkezpen jaia. Ondoren, ARGIAko kide Iraitz Agirrek, liburuaren egile Jakoba Errekondok eta Remenetxe jatetxean 25 urtez sommelier ari den Jon Andoni Rementeriak hartu zuten hitza. Rementeriak liburu honen eta bertako produktuen garrantzia azpimarratu zuen eta balio horietan bat egiten duen "Urdaibai esentziak" proiektuari egin zion erreferentzia, zeinak elkar-tzen baitituen eskualdeko jatetxeak.

Aurkezpenaren ostean, luze iraun zuen bertaratu-takoen esperientzia trukeak, baratzezainek aukera baliatu baitzuten liburu sinatzearekin bat beren zalantzak azaldu eta Errekondori aholkua eskatzeko.

Giroaren erakusgarri, Onintza Enbeitak azokako elkarrizketa txiokatu zuen.



Onintza Enbeita
@onintzaenbeita

Jarraitu

"Liburue erosi dozu?", esan deusat bati azokan Bizi Baratzearen standaren aurrean.
"Liburue? Atxurre nok ibili falta da!".
Arrazoia!

Bizi Baratzea liburuaz Errekondok Hernaniko Karabelekon emandako hitzaldiaren bideoa ikusgai www.argia.eus/multimedia helbidean.



Eskuratu liburu sinaturik

Bizi Baratzea ARGIA n erosi gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzuekin jaso dezakezu liburu.

Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikus ondoko zutabe non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak

Salneurria: 23 €
Harpidedunentzat: 19,50 €

☎ 943 371545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

Zure saltokian liburu salgai jartzeko, deitu.



@bizibaratzea · Informazio gehiago: www.argia.eus/bizi-baratzea

AURKEZPEN HITZALDIAK

herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan.

Hauek dira ondorengo hitzorduak:

Ekainak 17 Gernika

Astran, 19:00etan.
Urdaibaiko Kontsumo Ekologikoko Taldeak antolatuta.

Ekainak 20 Tolosa

Azokan, 11:30ean.
Goroldik antolatuta.

Ekainak 20 Beasain

Nepalдарren aldeko Euskal Azoka Bereziaren barruan.
Plazapen, 19:00etan.

Ekainak 22 Oñati

Eltziako hitzaldi gelan,
18:30ean.

Uztailak 4 Antzuola

Euskadi Irratiko Landaberri irratsaioarekin batera, goizeko 10:00etan.
Lizarraga auzoko San Martzial ermitan.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratu duzu.

sustapena@argia.com
☎ 943 371 545

Kaligula zentzudunena

ERROMA, K.O. 37. Gaius Julius Caesar Germanicus gaztea enperadore izendatu zuten. Baina Kaligula ezizenez –eta agintaldi laburrean egindako aldrebeskeriengatik– da ezaguna.

Dantza eta antzerki ikuskizunen zale amorratua omen zen enperadorea. Ekitaldien amaieran, artistengana hurbildu ohi zen, muxuka, losintzan. Dantzari eta aktoreak suharki babesten zituen eta gozo jartzen zen zerbaitek edo norbaitek ikuskizuna eragozten edo eteten zuenean.

Suetoniok jaso zuenez, behin, Kaligulak oso gustuko zuen artista bat jardunean ari zela, ikusleetako bat zala-parta eta iskanbila sortzen hasi zen. Enperadoreak eskutitz bat idatzi zuen hantxe bertan eta ehuntari bati luzatu zion, zalapartariari eman ziezaion. Ehuntariak enperadorearen mezua Mauritaniako Ptolomeo erregeari helarazteko agindua eta gutuna bera eman zizkionean, ikusle gajoak ez zuen ezer onik espero. Bazekien enperadorea gogaitu zuela eta auskalo Kaligulak zer zigor krudel idatzi zuen eskutitz horretan.

Bizitzako azken bidaia izan zitekeena egin zuen, Ptolomeoren gortera iritsi zen eta gutuna eskura eman zion erregeari. “Mesedez, mezua dakarrena itzul dadila Erromara” irakurri zuen hark ozen. Mezuak ez zuen besterik esaten. Ikusle iskanbilatsuaientzat ez zegoen zigor krudelik. Baina bide luzea erabat larrituta eman ondoren, ederki damutu zitzaion ikuskizunean izandako jarrera, eta lezioa ederki ikasi zuen.

Garaiko iturri urriek Kaligula megalomanoa, ankerra eta apetatsua deskribatzen dute. *Incitatus* izeneko zaldi kuttuna kontsul izendatu zuela diote, arrebekin intzestuharremanak izan zituela, aristokraziako kide aberatsenak hil zituela haien ondasunak bereganatzeko... Mezuaren hartzailea bera ere, Mauritaniako erregea, Erromara egindako bisitaldi batean hilko zuen, Britainia konkistatzeko ahaleginen porrotak eta Inperioaren ekialdeko probintzietatik zetozkion berri txarrak suminduta. Agintaldiaren hasieran kudeatzeko gaitasuna zuela erakutsi zuen enperadore gazteak, baina gaixoaaldi larri baten



METROPOLITAN MUSEUM OF ART

Kaligula (K.o. 12-41), beste asko bezala, sumindu egiten zen ikusleen zalapartak ikuskizuna eragozten zuenean.

ondoren burua galdu omen zuen, eta zentzu ona berreskuratzeko tarte handirik ere ez zuen izan, pretoriar guardiako kideek 28 urte besterik ez zituela hil baitzuten. Horrenbestez, tirano zoroaren irudia da iritsi zaiguna. Ikusle iskanbilatsuaeren pasadizoa haren eszentrikotasunaren seinaleztat jo ohi da, nahiz eta beste protagonista bat izanez gero, jakinduriaz emandako leziotzat joko genukeen ziurrenik. Eta, antzokietan edo zine aretoetan, denok izan dugu inoiz ikusle berriak Mauritaniako erregearengana bidaltzeko gogoak. ■

Arrastoak

Bigarren Mundu Gerrako hegazkinek klima aldatu zuten



INGALATERRAKO hego-ekialdeko kliman aldaketak eragin zituzten Bigarren Mundu Gerran eremu horren gainetik igaro ziren milaka hegazkin aliatuek, Birminghameko Unibertsitatearen azterketa baten arabera. Jakina da hegazkinen lorratzak kliman eragiten duela, baina urte haietako kontzentrazioa ez da sekula berdindu, eta adibide ezin aproposagoa da eragin

hori neurtzeko. 1944ko maiatzaren 11n 1.400 hegazkin britainiar eta estatubatuar irten ziren Ingalaterratik kontinentera bidean. Lainoak ugartitzea eta tenperatura jaitea eragin zuen horrek; base militarretan, zehazki, 0,8 °C-tan egin zuten behera termometroek. Ikerlanaren ondorioak *International Journal of Climatology* aldizkarian argitaratu berri dituzte. ■

Harpidetza bakoitzarekin,
are independenteago

ARGIAK eta EUSKAL HERRIAK

mugarik ez

Mugak sortzen dituen gastuak **gure gain** **hartu ditugu**

ARGIA n lurraldetasuna eta berdintasuna ditugu oinarri. Mugarik gabeko Euskal Herria dugu ipar eta horregatik, harpidetzen tarifak bateratzea erabaki dugu.

ARGIAren balioak praktikara ekarri eta estatuen korreo sistemek sortutako kostuen diferentziak gure gain hartu ditugu. Euskal Herriko herritar denek baldintza berak izan ditzagun.

Gure konpromisoaren koloreekin, Euskal Herria margotzen jarraitzea baitugu erronka.

ARGIA asteen behin jasotzeko aukera:
hilean 12 euro baino ez*

ARGIA hilean birritan jasotzeko aukera:
hilean 7 euro baino gutxiago **

ARGIA hilean behin jasotzeko aukera:
hilean 4 euro baino gutxiago ***

*ARGIA astero: 145 euro urtean.
Ordainketa urtean behin edo bi zatitan egiteko aukera.
46 zenbaki + 11 Larrun eta Urtekaria.

** ARGIA hilean birritan: 77 euro urtean.
Ordainketa urtean behin. 22 zenbaki + 11 Larrun.

*** ARGIA hilean behin: 41 euro urtean.
Ordainketa urtean behin. 11 zenbaki + 11 Larrun.

ESKAERAK

© 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

 **argia**

HIRIGINTZA PLANAK ETA EUSKARA

Hizkuntza eragina neurtzeko tresna biribiltzen

Tolosaldeko Lurraldearen Zatiko Planean Eragin Linguistikoaren Ebaluaziorako (ELE) tresna sortu berria aplikatu zuten 2014ko maiatzean. Planak 4.100 etxebizitza egitea aurreikusten du. Eskualdeko biztanleen %71 euskalduna da eta emaitzek diote hirigintza planak eragin moderatua izango lukeela eskualdeko egoera soziolinguistikoan. ELE Ondarroan eta Orion ere probatzen ari dira.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkia: Dani Blanco

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK eta UEMAK sortutakoa da ELE Eragin Linguistikoaren Ebaluaziorako tresna. Udalerrri euskaldunetan euskara sustatzeko eta zaintzeko konpromisoaren ondorioetako bat da. Alegia, politika publikoetan, ezertan hasi aurretik, ingurumen inpaktua neurtzen den moduan, tresna horrek hirigintza plan batek edo beste edozein esku-hartzek eremu jakin batean hizkuntzan eragin dezakeena aurreikusteko aukera emango luke.

Nola erabili da tresna?

ELE Tolosaldean (Gipuzkoa) estreinatu dute, hirigintza planean. Ziurrenik hemendik aurrera egin nahi dituzten tresna ereduaren artean osatua izango da, hirigintza planak konplexuak baitira. Pauso dezente ditu, eta ondoren, ideia orokor bat egiteko adina azalpen baino ez dugu emango. Hasteko 33 galdera egiten ditu, bizi kalitateaz, ekonomiaz, azpiegiturez, komunitatearen gizarte eta kultura bizitzaz, eta biztanleriaren ezaugarriez. Hona galderen hiru bat adibide: Proiektuak eragingo al du gatazkarik edo zatiketarik euskaldunen komunitatean? Sortuko dituen lanpostuak bertako biztanleek beteko dituzte? Proiektuak izango al du eraginik bertako jendearen bizi-mailan? Galderaren erantzuna baiezkoa bada, hau da,

nolabaiteko eragina aurreikusten bada, eragin hori nolakoa den jakiteko hamaika atributuri erantzun behar zaie: eragin mota, eragina, intentsitatea, hedadura, unea, iraunkortasuna, itzulgarritasuna, berreskuragarritasuna, sinergia, metaketa, aldizkakotasuna. Formula bat aplikatuz eragin linguistikoaren indizea kalkulatu da. Bost zifrek osatzen dute indizea, bizi kalitateak, komunitatearen gizarte eta kultura bizitzak, biztanleriaren ezaugarriak, ekonomiak eta azpiegiturek zifra bana ematen dute. Eraginaren garrantziaren eskalaren arabera, Tolosaldeko aplikazioan ez zen alderdi kritiko edo larririk identifikatu. Aipatu berri ditugun bost alderdietatik lehenengo hirurek eman dute indizerik altuena, eta eragin moderatuaren barruan leudeke.

Tresnak 33 galdera egin ditu, era honetakoak: Sortuko dituen lanpostuak bertako biztanleek beteko dituzte?

Udalerrrien hauskortasun indizea

Eragin linguistikoaren indizea soilik aterata ez ziren konforme geratu, eta beste hiru indize landu zituzten, hiz-

kuntzari estuago lotuak. Hauskortasun indizea da lehenengoa. Horren helburua udalerrriak inpaktu linguistikoaren aurrean bere izaera soziolinguistikoa galtzeko duen arrisku maila neurtzea da. Zer hartzen du kontuan indizeak? Udalerrriko biztanle kopurua, euskaldun portzentajea, etxean euskaraz egiten duten pertsonen portzentajea, euskara lehen hizkuntza duten pertsonen portzentajea, UEMAKo udalerrriak eta EBPN (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) daukatenak. Indizearen arabera, udalerririk hauskortasun euskaldunenak dira, eta gehienetan biztanle gutxi dutenak.

Lurralde Zatiko Planaren eragin indizea

Indize honen helburua LZPren barruko ekintzek hizkuntzarengan izango duten eragina neurtzea da. Herriz herri egin zuten ebaluaketa. Ondoren, hauskortasun eta LZP indizeak gurutzatu zituzten. Izan ere, gerta daiteke herri batek hauskortasun indize altua izatea, baina era berean Lurralde Zatiko Planak herri horri gutxi eragitea. Ondoko hiru ondorioetara iritsi ziren. Bat, hauskortasun handia dutenen artean LZPren eragin ertaina jasaten duten udalerrriak hauek dira: Hernialde, Aduna, Albiztur, Elduain, Alkiza, Altzo, Amezketak, Berrobi eta Bidegoian. Bi, LZPren



Argazkian, Urbil merkataritza gunea Usurbilgo lurretan eraikia. Egin aurretik Eragin Linguistikoa Ebaluatzeko tresna aplikatu izan balitzaio zein ondorio aterako ote ziren? Nolako neurri zuzentzaileak hartu beharko ziren Usurbil moduko herri euskaldunean ahalik eta gutxien eragiteko? Eta gertuago dagoen Lasarte-Orian ebaluazio bera egin izan balitz?

eragin handia dutenen artean hauskortasun ertaina duten herriak: Zizurkil, Ibarra eta Anoeta. Hiru, hauskortasun txikiagoa izan arren, duten biztanle kopuruagatik kontuan hartzekoa da LZPk Villabonan eta Tolosan izan dezakeen eragina.

Euskararen ezagutzaren proiektzioaren indizea

Planak agindutako 4.100 etxe egingo direla kalkulatu zuten, jakinda esandako kopuru osoa betetzea ez dela ohikoa. Etxebizitza bakoitzeko hiru kide kontatu zituzten. Ondoren, etxebizitza horietara joango ziren biztanleak nongoak izango ziren kalkulatu zuten (Tolosaldekoak, Gipuzkoako beste tokietakoak, EAEko beste lekuetakoak, Nafarroakoak, Espainia eta atzerrikoak). Azken pausoa haien euskara ezagutza kalkulatzeko izan zen. Proiektzio ariketaren arabera, ondoko udalerriek galduko lukete euskara ezagutza portzentaje altuena: Zizurkil

(%10,4), Anoeta (%9,3), Amezketak (%8,9), Orexa (%7,6), Ibarra (%7,4), Ikaztegieta (%7,3), Gaztelu (%7,3), Baliarrain (%7,1).

Tolosaldean batez beste euskararen ezagutza %6,7 jaitsiko litzatekeela aurreikusi dute, beti ere inolako neurri zuzentzailearik hartuko ez balitz

Lurraldearen Zatiko Plana osotasunean ezarriko balitz, Tolosaldean batez beste euskararen ezagutza %6,7 jaitsiko litzatekeela aurreikusi dute, beti ere inolako neurri zuzentzailearik hartuko ez balitz. ELE tresnaren bi azken pausok horiek dira, batetik, planak egoera soziolinguistikoan eragina izango badu neurri zuzentzaileak proposatzea, eta bestetik, neurriarik aplika-

tzen ez bada nolabaiteko zigorrak ezartzea.

Tresnaren bertsio errazagoak

ELEren lehen eredu hirigintza planetarako dago bereziki pentsatua, baina bestelako politika publikoak ebaluatzeko tresna sinpleagoa behar zelakoan, edozein zerbitziburuk betetzeko moduko tresna sortu dute. Esate baterako, Gipuzkoako Foru Aldundiak, legegintzaldi bukaeran, zahar egoitzak kudeatzeko Kabia erakundeari ELEren bertsio errazagoa aplikatzeko asmoa zuela adierazi zuen. Kultur egitasmoetarako, lantegi bat eraikitzeko, merkataritza gunea egiteko eta beste hainbat jardueretarako tresna egoikiagoa litzateke azken eredu hori.

UEMAK ELE erabiltzeko formazio ikastaroak eskainiko dizkie erakundeko udalerriek, tresna horren aplikazioan aitzindariak izatea dagokiola iritzita. Gaur egun, Orioko, Ondarroako eta Baztango udalak dira ELE abian dutenak. ■

Babeslea: Hernaniko Udala



Mundua aldatzeko hiru aukera: gosaritan, bazkaritan eta afaritan

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |



Landare

Izaera: Produktu ekologikoen kontsumitzaileen elkarte.
Sorrera urtea: 1993.
Hasierako bazkide kopurua: 40 pertsona.
Gaurko bazkide kopurua: 2.400 pertsona.
Langile kopurua: 23 pertsona.
Biltegien kokalekua: Iruñeko Arrotxapea auzoa eta Atarrabia.

LANDARE ELKARTERA iritsi eta topatu dugu David Garnatxo, elkartearen sartzekotan dabilen lagun batekin solasean. Tokiko produktuez eta kontsumo arduratsuaz ari diren bitartean, Garnatxok azaldu dio sarrera modura 42 euro ordaindu beharko dituela, eta ondoren hama-bi hilabeteko kuota 36 eurokoa dela, urtean bi orduko auzolana egiteko konpromisoarekin batera.

Kontsumo ereduaren aldaketa da Landareren helburu nagusietakoa. Produktu ekologikoak eta ahal den neurrian bertakoak dauzka eraldaketarako tresnatzat. Ahal den neurrian diogu, produktua bertakoa izatea beti ez baita posible; baina inguruan ekoizten den elikagaiari ematen diote lehentasuna.

Dimentsio soziala hartzen duten ekoizleak —eragile zein norbanakoa— izaten dituzte kontuan eurekin harremanetan jartzeko garaian. Elikadura eraldaketa sozialerako gakoetako bat bezala ulertuta, zuzeneko hartu-emana izaten dute nekazari eta abeltzaineekin, bitartekariak alde batera utzita. Ekoizleei erositako produktuaren kargu Landare egiten da eta saldu gabe geratutakoa ezin



JOSU SANTESTEBAN

Kontsumo ereduaren aldaketa du Landarek helburu. Elikagaiekin egiten den espekulaziotik aldendu eta pertsona eta ekoizpenari ematen dio garrantzia.

diote itzuli. Horrez gain, salmenten etekinen %80 nekazariarentzat da, dendan %20 gelditzen den bitartean —beste kasuetan nekazariari hamarretik bat iritsi ohi zaio, saltokiak eta bitartekariak direla medio—. Elikagaiekin egiten den espekulaziotik aldendu eta pertsona eta ekoizpenari ematen die garrantzia talde honek, eta ekonomia jasangarriago eta justuago baterantz lan egiten dute.

Errotaberri peñako jatetxea

Arrotxapean eta Atarrabian Landare elkartekeo biltegi bana dago, bertan bazkideek erosketak egin ditzaitez. Kideen arteko jakintza trukaketak ere antolatzen dituzte gai baten inguruan gehiago dakienak gutxiago dakitenentzat ikastaroak eskainiz. Eta orain urte batzuk herri jantokia prestatu zuten Iruñeko Errotaberri elkartearen. Ikusirik peñak astean zehar hutsik egoten direla, jatetxe modura egokitzea bururatu zitzaion. Gaur egun independenteki funtzionatzan duen jantokia da, Landareekin lotura eko-

nomikorik ez duena —baina elikagaiak bertatik hartzen dituzte—. Egunean berrogei bat bezero biltzen ditu eta bi laguni ematen dio lana.

Hiri eta nekazal munduaren lotura

Hiritan zaila izan ohi da nekazariarekin zuzeneko harremana edukitzea. Landareko kideak ere kontzientzia dira Iruñean ez dela erraza herritarrek zuzeneko tratua hori mantentzea. Hala, harremana bideratu ahal izateko elkarte gisa ikusten dute beren burua, mundu urbanoan bertako nekazaritzak tokia izan dezan; eta aldi berean hiritik ere bertako nekazaritza sustengatu dezagun praktika sozial justuagoarekin.

Antimilitarista eta ekologista “zoro” batzuek orain hogeita bi urte hasitako proiektuak bere ibilbidea darrai, eta hasieran 40 bazkide izatetik egun 2.400 izatera igaro dira. Bazkideen asanbladak dira erabakiguneak, nahiz eta azken urteetan parte-hartzea jaisten joan den eta adosgune hauek birpentsatzen eta birmoldatzen diharduten. ■

Munduko hizkuntzetan huts bat


ANTZA, munduan 7.102 hizkuntza ditugu bizirik egun. Haietako 23 dira nagusi 4.100 milioi hitzunen artean, biztanleriaren ia %60 izanik. Halaxe dio *South China Morning Post* egunkarian karrikaratutako infografia batek (ttiki.com/340111). Irudikapen informatikoa erabiliz, zirkulu batean munduko mintzaira guztiak ditugu, eskualdeak eta

hiztunen multzoak sailkatu ondoren.

Munduko mintzairak? Mapamundi honetan euskaldunok ez dugu gure hizkuntza bilatu behar, gure kontaketa ñimiñoa agertzen ez delako. Huts bat baino ez gara iruditegi kosmopolita honetan. Abisua eman zigun Joxe Azurmendik bere *Manifestu atzeratua* olerkian: “Ez, ba, bilatu kondaira unibertsalen liburu handietan gure inperiorik. Aginako zero bat zen gure inperio guztia”.

Kanpoko teleteknologien, infografien eta liburu elektronikoen garaian gure hitza hutsaren hurrengoa besterik ez da, baina mapa globalaren zirkulu honetatik libre gara menpeko perpausen esfera hustu dezagun. Aha! legin honetan euskaldun ororen hitzak axola du. Aginatik ez dago dena egina.

Ignazio Aiestaran
Uriz (ARGIAko Komunzki
blogetik hartua)



Bahea

Lutxo Egiak hilabete egingo du Bilbon euskaraz eta ingelesez hitz egiten, alegia, ez du gaztelaniarik erabiliko. Berriako Oreka blegean esanak:

“Hirugarren eguna. Letragileen oreka dugu ezinbesteko lagunarte orotan. Neure adiskideei, hasierako harritze normatiboa atzean utzi ondoren, egocera berrira moldatzea egokitu zaie. Hori, besteak beste, poteoa bezalako egite kodifikatuetan gauzatzen da. Eta hortxe sortu zaizkit dudak: Desiretan ote dabil-tza azal ez nadin? Ez naiz, bada, mutu gelditzeko plazaratu!

Ufa, gaitzerdi aurrejuzkurik gabe ari naizen! Zein oker nabilen erakutsi dit asteburuko errituak. Euskarari ez dakit, baina performanceari behintzat harrera bikaina egin diote, beharbada bukatze-eguna duela ondo baino hobeto baitakite. Beharbada ez. Komunikazioaren zehatzean izugarri galdu eta ohizkanpoko harremanak ezarri ditugu, bestelako hartuemanak, normalitateetik nahikoa urruti. Surrealismotik nahikoa hurbil tarteka. Eraldaketak, bistan da, eragin egin die hurbilekoei, erdaldunei batez ere. Eta halaxe baieztapena: goizetik gauera faktore desorekatzaile bilakatu naiz”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Kapitalismo aseezin eta krudela

NAZIOARTEKO MONETA FUNTSAK (NMF), munduko kapitalismoaren sinboloak, berriz ere egin du langileen eta herriarren kontra. Gainera, herrialde bakoitzak bere erabakiak hartzeko duen subiranotasuna zanpatu du. Joan den astean –Espainiako Bankuaren oniritziarekin– eskatu zuen Espainiako Estatuan lan erreforma berri bat egiteko, dioenez, errekupeazioa indartzeko. Eta horretarako exijitu du kontratu mugagabeak dituzten langileen despidoak merkatu eta erraztea, despido kolektiboetan dauden oztopo legal eta administratiiboak ezabatuz. Soldatetan eta lan ordutegian ere malgutasun gehiago eskatu du NMFk, produktibitatea handitzeko antza. Eta BEZaren igoera eskatu du, baita hezkuntzan eta osasungintzan berrordainketa aplikatzea ere.

Ezin ahaztu krisia hasi zenetik NMFk sustatutako erreforma antisozialetan barneratuta gaudela. Krisia ez zuten sortu herriarrek, finantzari kapitalistek baizik. Eta orain arte mantendutako austerizidio politikak ez du balio izan hazkunde ekonomikoa eta enple-

gu tasa handitzeko, kontrara, langabezia igo da, eta prekarietatea, bazterkeria, desberdintasun sozialak eta pobrezia handitu.

Beste behin ere, NMFk sarraskijale aurpegi salbaia erakutsi du, egoera ahulenean dauden langileen haragi eta odoletan gozatzen du. Bere kudeatzaileak soldata eta dieta milioidunekin aberasten dira, eta kapitalismoa den bezalakoa azaltzen zaigu orduan: basatia eta aseezina. Austeritate gehiago eskatzen diete langileei, lan gehiago eta diru gutxiago. Egoera horri denek batera egin behar diogu aurre: politikari, eragile sozial, sindikatu eta herri mugimendu antikapitalistek. Eragotzi behar dugu kapitalismoak beste erreforma basati bat egitea. Udaletan, diputazioetan eta erkidegoetan osatu diren gobernu berriek –batez ere ezkerreko indarrak dauden horietan– NMFren neurri antisozialen kontrako oposizio erradikal hori gidatu behar lukete.

Juan Mari Arregi

«Ikurrina beti egon da txupinazoan eta aurten ere egongo da»

Iruñea Nafarroako Estatuaren hiriburu nahiko luke, baina pozarren da Nafarroako Foru Komunitateko Iruñeko alkate izatearekin. Lau alderdien adostasuna kudeatu beharko du eta arte berezia aldaketaren alkatea izateko. Oraindik ere sinesgaitza, baina bai, egia da. Aldaketaren Iruñea bor-bor da Sanferminetan ospatzeko.

| XABIER LETONA |

Argazkiak: Josu Santesteban

San Ferminetako txupinazoa aurten nolakoa izango den ikusmin handia dago hirian: Juanito Etxepare, La Veleta Peña, Orfeoia...

Txupinazoak balio sinboliko handia du herritarrentzat eta UPNk beti jokatu izan du modu baztertzailan gai honekin. Aurrera begira formula parte-hartzailea bilatu nahi dugu, herritarrei protagonismoa emango diena. Aurten tarteko bidea egin beharko dugu eta aipatu dituzun horiek hor daude.

Baina zuk botako duzu edo beste norbaitek?

Nik pertsonalki ez dut protagonismoa nahi, baina EH Bilduk azken urteetan izan du bazterketa maila bat eta berak izan beharko luke protagonismoa.

Era batera ala bestera, ikurrina txupinazoko osagai tipikoa da. Udaletxean egongo al da ikurrina nonbait?

Egongo da bai, beti egon izan da, edo udaletxean edo kanpoan edo bietan. Aurten ere egongo da. Hori bai, era ofizialean egoteko Nafarroako Sinboloen Legea aldatu behar da. Bitartean, badira formula anitz nafar askok ikurrina propio bezala sentitzen dutela adierazteko.

Festa parte-hartzaileagoak aldarrikatzen dira kalean. Nola egiten da hori?

Sanferminak horrela sortu ziren. Azken urteetan UPN saiatu da Sanferminei hesia jartzen, jaia instituzionalizatzen; hori baliatzeaz gain, UPNk tentsioa sortu du. Buelta eman nahi diogu horri. Hor dira Sanferminetako Mahaia edo Entzierraren Mahaia, gaur egun lorontzi gisa eta guk berriz aktibatu nahi ditugu. Nola aktibatu daitezke Sanferminak peñei edo Gora Iruñeari bizkarra emanez? Hori guztiz okerra da.

Zu fededuna zara?

Ez.

Nola hartuko du parte udalbatza berriak Sanferminetako prozesioan?

Gaur egun hiria laikoa da eta Sanferminak hiriaren jaia dira, beraz, jaia birdimentsionatu behar dira. Prozesioa ez da bakarrik erlijio ekitaldia, badu bere dimentsio soziala eta, beraz, zinegotziek askatasuna izan behar dute bertan egoteko ikuspegi sozialagatik edo erlijioagatik. Alkateak hor egon behar du eta hor egongo da; hori bai, meza eta halakoak beste kontu bat dira.

Historia zubi, ikastolatik alkatetzara

IRUÑEKO Alde Zaharreko Mañueta kalean jaio zen 1962an eta bi seme-alaben aita da. 1991tik da San Fermin ikastolako irakasle. Artearen Historian lizentziatu zen eta arlo horretan da doktore Nafarroako Unibertsitatetik. Bere garaian Itoizko Urtegiaren aurkako mugimenduan aritu zen. Orintsuago Nafarroako konkistaren V. men-

deurreneko dinamikan ibili da buru-belarri Nabarralde eta Nafarroa Bizirik elkarteetan, Euskal Herri osoan atzera aurrera. Hainbat argitalpen ditu eta *Auñamendi* entziklopediako kolaboratzaile da ondare historiko-artistiko gaitan. Igandero Iruñeko kalei buruzko *Adios Pamplona* izeneko atala egiten du *Diario de Noticias* egunkarian.



“Borondate politikorik ez delako egon ez zaio aldatu izena Rodeznoko Kondearen Plazari eta honek 50.000 pertsonen heriotz zigorra sinatu zuen”

gu, bata kode etikoaren ingurukoa eta bestea inbestidurari dagokiona. Beste biak programari buruzkoak dira eta adostasun maila oso handia dugu. Nabardurak eta desadostasunak jorratuko ditugu aurrerago.

Lan egiteko moldeei dagokienez, udal sailetan alderdietako jendea nahasteko asmoa omen duzue.

[Harridura keinua] Ez dut uste nik hori esan dudarik...

Nik Aranzadiko herri batzar batean entzun nuen.

A, hori bai, haiek hori nahi dute eta. Sailen artean zeharkakotasuna egon behar duela uste dugu guk ere, batez ere azken legealdian sailak gune itxi gisa aritu direlako, haien arteko batere koordinaziorik gabe. Adibide gisa, behin udaletxeak hiru ekitaldi antolatuta zituen egun berean Gaztelu Plazan.

Beraz, posible ikusten duzu sail bateko zinegotzia alderdi batekoa izatea eta zuzendaria beste batekoa?

Bai, posible lirateke halako zeharkakotasunak, baina horrekin batera oso garrantzitsua da gobernukideen arteko konfiantza eta koordinazioa.

Gardentasuna negoziazioetan. Aranzadik hiru molde aipatu ditu: edo publikoak izatea, edo *streamingez*, edo akta adostuez. Zer uste duzu?

Hor bi mutur dira: batetik, hainbat osoko bilkura eta batzorde jadanik *streamingez* igortzen dira eta, bestetik, beste lan talde batzuen bilerak sekretuak dira. Bien tartean badira aukera zabalak jakiteko une bakoitzean nola ibili behar dugun. Askatasunez lan egiteko ezin zara eztabaidan ibili kamara batekin gainean. Garrantzitsuena da oso argi gera dadila zer adostu den. Aktak adostutakoak eta denok sinatutakoak

Sanferminetako prozesioa: “Alkateak hor egon behar du eta hor egongo da”.

Irakurri dizut bizitzan batzuetan moderatua izan behar dela eta beste batzuetan muturrekoa. Zuri zer dagokizu orain Iruñeko alkate gisa?

Bi osagaiekin jokatu beharko dut, baina batez ere hiriaren alkatea izan behar dut, bozkatu nautenena eta bozkatu ez nautenena. Jakitun gara herritar askok ez gaituela bozkatu beldurragatik, UPNk landutako

apokalipsi horregatik, eta benetan nahiko genuke hurrengoan bozkatzeko gaituenak inongo beldurrik gabe egin ahal izatea.

Geroa Bai, Aranzadi eta Ezkerra udal gobernuan nahi dituzula aipatu duzu. Egongo dira?

Bai. Orain arteko elkarrizketetan lau agirirekin ari gara eta bi onartu ditu-



“Yolanda Barcina, Enrique Maya eta Simon Santamariak [udaltzain buru ohia] elkarbizitza jota utzi dute udaltzaingoan”.

badira, nahikoa da. Hara, nik ez nuke arazorik bestela ere egiteko.

Erregimen aldaketak egiteko lehengo jendea ere erabili behar omen da. Zuk zer uste duzu? Noraino?

Guk gure lan egiteko estiloa eta filosofia eramango ditugu udaletxe-
ra. Gure desadostasuna Udala kudeatu dutenekikoa da, baina jakitun gara, Udaletxean balio handiko pertsonak dira eta horiek baliatu nahi ditugu. Soseguz sartu nahi dugu udaletxean. Pertsonak bere balioagatik hartuko ditugu aintzat, ez pentsamolde politikoagatik.

Udaltzaingoa bereziki nabarmendu da errepresio lanetan. Udaltzain horiek hor izango dituzu. Nola eman buelta egoerari?

Udaltzaingoaren barruan orain harremanak oso zapuztuak daude. Yolanda Barcina, Enrique Maya eta Simon Santamariak [udaltzain buru ohia] elkarbizitza jota utzi dute. Orain udaltzain batzuk gure alde egongo dira UPN kanporatzea lortu dugulako. Eta alderantziz, beste batzuk UPNrekin eroso ziren eta mesfidantzaz hartuko gaituzte. Bi sektoreei zera adierazten

diegu, lasaitasuna eta bakea nahi ditugula, eta barruan elkarlanerako giroa lortu behar dugula. Ondoren, epe ertainera, behar dugun udaltzain ereduaz hausnartu behar dugu.

Nafarroan asko hitz egiten da PSNk aldaketan izan behar duen lekuaz. PSN noraino eta nola sartu behar da Udaleko aldaketan?

Azken urte luzetan aldaketarako aukera bat izan denean PSN aurka agertu izan da eta UPNren alternatiba izatetik UPNren makulu izatera pasatu zen. Beraz, argi geratu da ez direla aldaketarako baliagarriak

PSN: “Susmoa dut oraingoz ez dutela norabidez aldatu. Eskatu genien bilera bat datorren legealdiaz lasai hitz egiteko eta ukatu egin ziguten, hurrengo egunean; aldiz, UPNrekin bildu ziren”

izan. Susmoa dut oraingoz ez dutela norabidez aldatu. Eskatu diegu bilera bat datorren legealdiaz lasai hitz egiteko eta ukatu egin digute, hurrengo egunean, aldiz, UPNrekin bildu ziren.

Eta PSNko kideekin informalki izandako kontaktuetan, bestelako zantzurik izan duzue?

Hauteskunde kanpaina termometro ona izan zen hori ikusteko. Hautagaiek toki askotan egiten dugu topo eta hor argi geratu da, bai jarreretan bai esandakoetan, gaur egun bi bloke direla: batetik UPN eta PSN, eta bestetik Geroa Bai, Aranzadi, Ahal Dugu, Ezkerra eta EH Bildu. PSNk oraindik lehengo erregimenarekin egiten du amets.

1998an Tomás Caballeroren hilketa gaitzetsi zenuen. Orain ere ETA gaitzestea eskatuko dizute askotan. Nola erantzun duzu?

Orain arte esan dudana. Oso bestelako egoeran, 1998an ere bortizkeriaren aurka egin nuen. Idazki bat aurkeztu zidaten eta sinatu nuen, eta orain berdin sinatuko nuke. Hori oso argi daukat. Baina garbi dut, halaber, bortizkeria mota asko

egon den garai batetik gatozela. Zorionez orain beste garai batean gaude, baina itxi behar dugu ongi aurrekoa: biktimak, erreparazioa, memoria... Jendeak kalean gelditzen nauenean langabezia, etxegabetzeak eta halakoez galdetzen dit, ez garai bateko bortizkeriez-eta.

Etxegabetzeak aipatu dituzula, Udalaren etxeak nola erabiliko dituzue?

Udalak baditu 200 bat etxe hutsik eta familiak kalean geratzen ari diren garaian hori guztiz ezmorala da. Etxebizitza negozio gisa ikusi da, baina eskubidea da eta, beraz, etxebizitzaren arazoari oinarri horretatik abiatuta helduko diogu.

Goazen Iruñeko Alde Zaharrera. Bertako bizilagunak oso kezkatuta daude auzoa tabernen parke mediatikoa bihurtu delako. Nola helduko diozue gaiari?

Garai batean ikusi zen saturazio hori eta tabernak irekitzeko moratoria bat egon zen. Gero El Corte Inglés sortu zen eta horrekin batera 1.858 denda itxi ziren Iruñean. Nola arindu, beraz, Alde Zaharrak zuen itxura utzia? Tabernak irekiz. Hori egin zen. Gainera, lizentziak eman dira kontuan hartu gabe tabernak metatzen ari direla. Ikusiko da, baina orain agian moratoria bat behar da aztertzeko ongi gaia eta ikusteko tabernak non behar diren eta non ez; lizentziak ere berraztertutik beharko dira ikusteko lokalak haren arabera erabiltzen ari diren.

Garrantzitsuenak da mahai bat sortzea ikusteko nola uztartu behar den jendeak aisialdirako duen eskubidea eta auzotarren eskubideak. Denak balio duen aisialdi eredu bultzatzen ari gara, iskanbila kalean, kaleak zikinak... tartean badira bestelako ereduak.

Yamaguchiko alkate berriari nola azalduko diozu zer izan den eta zer den Iruñea?

Bere izenetik hasita, Iruñeak hiria esan nahi du. Horrek adierazten du bere garaian

“Kalean jende askok galdetzen dit: ‘Egingo duzue ongi? Zama hori bai sumatzen dut’”

erreferente bat bezala sortu zela bere inguruan. Gero, gure estatu propioa izan genuenean, hiri hori hiriburu bilakatu zen eta euskaldunen artean inoiz ez zen zalantzan jarri Iruñeak zuen lehentasuna. Nafarroak bere independentzia galdu zuenean kontakizun hori moztu egin zen eta Europako hirietan erreferente bat izatetik, pasatu zen estatu baten bigarren edo hirugarren mailako hiria izatera. Inguratu zuten harresiez eta 400 urtez bere hazkundera galarazi zuten: debekatua zegoen harresietatik kanpo eraikitzea. Harresi fisiko horiek bota ziren, eta orain, garai batean izan ginena izateko, diren harresi ideologikoak bota behar ditugu. Hau da Iruñeaz nik egiten dudak kontakizun historikoa.

Historia hurbilera joz, Iruñeko kaleak izen eta sinbolo frankistez beteak daude oraindik. Nola jokatu duzue?

Premiazko lanetakoa da hori. Borondate politiko kontua da, horretarako ez da behar sekulako aurrekontua. Borondate politikorik ez delako egon ez zaio aldatu izena Rodeznoko Kondearen Plazari eta honek, Francoren lehen Justizia ministroa zela, 50.000 pertsonen heriotza-zigorra sinatu zuen. Hori hala mantentzea biktimei eta memoria historikoari egiten zaien sekulako eraso da.

Eskuin mediatikoa lepoan izango duzu legealdian zehar. Iruñean botere handia dute. Beldurrik?

Ez. Nik orain erregimenaren begirada baino, aldaketaren alde dagoen jendearen begirada sentitzen dut eta hori sekulako erantzukizuna da. Kalean jende askok galdetzen dit: “Egingo duzue ongi”? Zama hori bai sumatzen dut. Demokrazia ezarri zenetik ez dugu halako aukerarik izan Iruñean eta gauzak ongi egin behar ditugu. ■

Gazteola*
Haur eta Gazteak
UDA euskaraz
Bilbo erdian!
Udalekuak, tailerrak, euskara eskolak,
barnetegiak eta trinkoak

Umeak	• Antzerkia • Bertso udalekuak • Ingeles eta jolasak • Dantza modernoa • Euskara eskolak • Futbola • Saskibaloia	Gazteak
	• Kirolak • Karakterizazioa • Kaleko dantza • Musika sorkuntza eta DJ • Ikus-entzunezko tailerra	

...
www.gazteola.com

Zer bilakatuko da Kaliforniako ametsa urik gabe geratuta?

Egarriak jota dabil munduko zazpigarren potentzia ekonomikoa. AEBetako Kalifornia azken 120 urteotako lehorterik gogorrena ari da nozitzen. Ur mozketak munduko aberats-nahien paradisuan. Hondamendi ekologikoa mendietan. Milaka hektarea aurten fruiturik emango ez dutenak. Tirabirak kaletarren eta baserritarren artean.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

HAMABI MILIOI ZUHAITZ HIL OMEN dira dagoeneko Kalifornian, “non 2015eko udaberria udazken kolorez ikusteak iragarri duen katastrofea”, idatzi du Elisabeth Scheiterrek *Reporterre* aldizkarian. “*La sécheresse en Californie menace la sécurité alimentaire des Etats-Unis*” kronikan plazaratu du agro-industriaren eredu bilakatutako soro eta baratze kaliforniarren itolarria.

Laugarren urtea betetzen du idorteak, 120 urteotako okerrera. Joan den apirilaren 1ean Sierra Nevadako mendietan, 2.000 metroko altueran, Jerry Brown gobernadoreak elurraren ordeaz belar hori eta ihartua aurkitu zuen.

Egun hartan Brownek neurri zorrotzak erabaki zituen: ur mozketak etxebizitza eta enpresa guztientzako, iturrien kontsumoa garestitzea, etxebizitzaren atarrietako belardiak ureztatzeko debekuak... Egin su ur xahuketari! 2013an kontsumitutakoaren %25 murriztea omen da helburua.

Erreakzionatu beharra dago, zeren eta *AEBen baratzea* deitu duten estatuan kalteak begi bistakoa baitira. “Ezin diegu ura murriztu nekazariei” aitortu du gobernadoreak. Sierra Nevadaren eta itsas hegiko mendien artean 725 kilometrotan luzatzen den erdiko ibarra da munduko sororik emankorrena.

AEBetan kontsumitzen diren entsalda, azenario, orburu, tomate, brokoli eta zainzuri gehienak Kalifornian sortu dira, mertxiken %84 eta aranen %94 bezala. Munduan jaten diren almendra guztien %80 bezala. Agro-industriak zurrupatzen du Kaliforniak daukan ur guztia %80.

Agintarien erabakien beha egon barik, murrizketak ur faltak eragin ditu. Iaz 500.000 hektarea abandonatu ziren lurgorri. 1.500 dolarreko galerak, 17.000 enplegu gutxiago. Aurten bikoiztu daiteke landu gabe lagatako hektarea kopurua. Non ekoiztuko dira horietatik eskuratu behar ziren uztak?

Scheiterrek titulu esan bezala, yankien elikadura segurtasuna mehatxatzen du Kaliforniako sikateak. Duela 40 urte, 1975ean, kontsumitutako barazki gehienak ehun kilometro baino hurbilago sortuak ziren AEBetako Midwest eskualdean: Indiana, Illinois, Iowa, Wisconsin, Michigan, Minnesota... Horietako nekazaritza osoa, ordea, arto eta sojatar birmoldatu dute geroztik, diru-laguntza handiz bultzata. Sarritan laguntzen truke baserritarrei barazkiak ekoiztea debekatu.

Orain Midwestekoek nahita ere ezingo lukete lurgintza berriz barazkietara aldatu: makineria eta instala-

*New York Times*erako Damon Winterrek airetik ateratako argazkian Dinah Shore Golf eremua, Ranch Mirage resort ezagunean, Kalifornian. Urbanizazio itxia osatuz, golfeko soropila inguratzen dute villa tipoko etxe garestiek, bakoitza bere belar puskatxo eta piszinarekin. Horietan bizi edo lasaitzen diren aberatsek hilabetean 500 eta gehiago dolar xahutu dezakete urrundik ekarritako ura alferrik galtzen. Irudian nabarmentzen denez, errepideak bereizten du inguru artifizial hezea berez hemen nagusi den basamortutik. Azken lau urteotan nozitzen ari den lehortea balio beharko lioke Kaliforniari bere garapen eredia berrantolatzeko, diote baikorrenek. Aldiz, gaia sakon ikertu duen Mark Araxek uste du jendeak ez duela onartu nahi lehorte luze baten barruan bizi denik. Arazoa haboro luzatzen bada neurriak hartuko dira, “baina gero iritsiko dira uholdeak eta berekin eramango dute jendearen oroipena”.

zioak erosteko leporaino sartuta daude zorretan. Kaliforniako ur faltak agerian utzi du amerikarren elikadura eskemaren ahuldadea.

‘California dreaming’ kinka larrian

Ura izan da hainbeste barazki eta fruitu Kalifornian kontzentratzeko arrazoia. 1930eko hamarkadan lurrik emankorrenak bihurtu ziren soro. Baina supermerkatuen ugartzeak eta agro-industriaren publikizitateak eragin zuten kontsumitzaileek urte osoan eskatzea barazki eta fruituak, eta horiei erantzuteko Kaliforniak ureztatzearekin martxan jarri zituen 3,6 milioi hektarea soro eta baratze.

Kantak dioenez, ordea, “*It Never Rains In Southern California*”, euri gutxi Kalifornian, hego zein iparran. Eta nekazaritzarik industrializatu eta intentsiboena dagiten laborariek bezala ura behar dute XXI. mendeko paradisura hurbildu diren kaletarrek ere. Ur asko.

La Vanguardia Francesc Peirónek egarri kaliforniarren diagnostikoa laburbildu du lerroburuan: “*El fin del ‘California style’*”. Hona hemen zinemaren meka, Disneylanden sehaska, Silicon Valleyko adimen teknologikoarena, industria aeroespazialarena, metal preziatuen bilatzaile ausartena, AEBetako soro nagusia —barazkien herena eta frui-



tuen bi heren ekoizten ditu—. Milaka jende erakartzen ditu kanpotik, beren bizi-ametsak bete nahian edo bertako edertasunak gozatzera turista datozenak. Arazo bakarra da agortzen hasi dela aberastasun horren guztiaren motorra: ura.

Agintariak diote kaletarrak ez direla nahikoa jabetu arazoaz. 2014an %20 aurreztekotan zirenak %8ra apenas iritsi ziren. Ureztatze-ko arauak zorrotz betetzen ez dituztenei isunak agindu zaizkien arren, kazetariak aurkitu ditu soropila lasai ederrean hezetzen dutenak.

California stylearen ametsak birmoldatzea kostatuko da. Etxe bakarrak, atari aurrean belar berdea dutenak, piszinatxo banarekin, ur kontsumo handikoak... Gobernuak

diruz laguntzen ditu belarra kendu eta basamortuari dagokion baratzea landatzen dutenak, modan jarri behar omen dira berriro harriak, kaktusak eta aloe verak.

Ez da aldaketa erraza. Oraindik hiriek eta auzoetako administratzaileak etxe bakarren jabeak derrigortzen dituzte etxe aurreko *zespada* txit berde edukitzera: bizilagun baten nagikeriak auzuneko etxebizitza guztien prezioak apaltzen ditu. Asko hasi dira soropila ureztatu ezinean belar ihartuak pintura berdez tindatzen. Egia! Irakurleak Googlen berehala aurkituko ditu argazkiak.

Beverly Hills, Palm Springs, Rancho Mirage... hiri mitikoez gain Kaliforniaren irudi topikoa ematen duten urbanizazio, *resort* eta etxediak urrun-

dik ekarritako ur merkeztatik elikatzen diren uharte hezeak dira berez basamortutik hurbilagokoa den eremu zabalaren erdian. Nola egokitu horiek deserta eskatzen duen kontsumo apalera eta irudi estetikorara?

Kaletarrak kexu dira murrizketak haientzako bakarrik omen direlako, nekazariak direlarik xahutzaile nagusiak. Baserritarrek haserre daude kaletarrekin, bizilekuak buru gabe antolatu dituztelako. Bide batez esanda, ekologistekin ere lis-karretan dabiltz, ibaiei eta hezeguneei ur emari minimoa bermatzeko ura kendu nahi dietela eta. Eta oraindik lurpeko iturriak libre direnez, gero eta sakonago zulatzen dituzte beren putzuak, arbolak eta baratzeak asetzeko likido bila.

Azken urteotan lehiakide berriak azaldu dira Kalifornian urpeko uren uxarka: *fracking* teknikaz petrolio ekoizten duten konpainiak. Ur kopuru oso handiak kontsumitzeaz gain, urte beltzaren xerka usatutako ur zikindua bere kutsagai kimiko eta guzti berriro lurpera botatzeko baimena eman die Kaliforniako gobernua. Earth Justice taldeak auzitara eramanez, ura lortu dute ur zikinak geruza freatikotik ezin bota ahal izatea... 2017tik aurrera.

Gainera, *fracking* erabilitako ura saldu ere egiten diete nekazari. Chevronek 70.000 upel petrolio eskuratzeko 760.000 upel ur birziklatu eta kopuru saldu die baserritarrei. Lurren analisietan azaldu dira toxikoak.

Kalifornia urreak famatu zuen XIX.ean. XXI.eko mirari kaliforniarraren motorra urak mugarazidu. Lehortearekin jabetu dira. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira



Bakegintzan ere, gizartea ahaldundu

PARISKO Bake Konferentzian Frantziako esparru politiko ia guztia bildu zen, eta baita giza eskubideen alorrean eta nazioarteko bitartekaritza lanetan ari den ordezkartza zabala ere. Espainia, Frantzia eta ETArri armagabetzea, biktimak eta presoan esparruetan urratsak emateko eskaria egin zitzaizen.

Humanitario tituluz jantzi zen Frantziako Asanblea Nazionalan egindako bilkura, baina Frantziako gunerik politikoenean egin zen berau eta pentsatzekoa da Parisen izango dela plaza samurragorik halako ekitaldi bat bideratzeko. Baina han egin zen eta Espainiako eta Frantziako gobernuei egin zitzaizen eskaria, bi estatuetako eguneroko jardunaren agintaritza politiko nagusienei.

Pentsatzekoa da Euskal Herriko bake prozesuan eduki politikorik negozioia ezin daitekeelako deitu zitzaioala humanitario, etorkizuneko balizko elkarrizketei bide diplomatikoa errazteko, baina humanitariotik oso harago doan bake prozesua da euskal gizarteak behar duena. Beste kontua da, lehenik eta behin pertsonen sufrimendua bideratu behar dela. Hori delako gizatasunezkoa, eta horrek ahalbidera dezakeelako sakon hitz egitea arazo politikoaz, azken finean gatazka honen gurpila motore politiko batek mugitu duelako.

Zalantza gutxi dago ETaren fenomeno politiko dela, eta honek ez du ez justifikatzen ez zilegiztatzen bere jardura armatua, baina bai kokatu. Behin hori onartuta, bestelako kontua da izaera politiko hori zein koordinatatan kokatzen den 2015ean eta

horrek zer esan nahi duen bakoitzarentzat.

HOR hasten da oraindik euskal gizartean sakon ematen ari ez den elkarrizketa, ez instituzioetan, ez eragile politikoen artean eta ezta herritarren artean ere. Eta badirudi oinarritzko koordinadak hauek direla: ETak borroka armatua modu aldebakarrean utzi du, gatazka horretan sortutako ondorioak konpondu behar dira eta euskal gizarteak protagonismoa behar du berak pairatu duen arazoaren konponbidean.

*Korapilo batzuk
elkarrizketa beroaren
baitan bakarrik
askatuko dira, ez
hauek isilaraziz eta
gordez*

Ondorioez jardutean batez ere biktima eta presoan esparruaz ari gara, baina bake prozesua ezin da horretara mugatu, iraganaz eta memoriaz hitz egitea ezinbestekoa delako, bai egungo bizikidetzaren oinarriak finkatzeko bai etorkizunean horrelako egoerarik errepika ez dadin. Elkarrizketa hori zintzoa bada, hitz egin beharko da sufrimendua gainditu eta pertsonen eragiten dieten egoera zehatzei buruz, baina baita ere gatazkaren kontakizunaz, biolentziaz, zilegitasunaz, terrorismoaz, eskubideez, zuzenbide estatuaz, Euskal Herriaz, Espainiaz, Frantziatz...

Horiek guztiak egon dira azken mende Erdiko Euskal Herriaren historian eta egin liteke gorde edo azalerazi. Gizarte gisa terapeuti-

koki egokiena zer den ez da zalantzarik, azaleratzea eta hitz egitea.

Espainian ez dago argi oraindik, baina euskal gizarteak, galde-tzen zaioenean, argi samar ditu kontuok: elkarrizketaz bideratu behar da hori guztia. Kontua da, elkarrizketa bideratu behar duten aktore nagusiek ez dutela nahi edo ez dutela asmatzen.

Orduan, elkarrizketa desblokeatzeko zer da garrantzitsua? Eten-gabe Madrilera—orain PPK, gero...—edo ETak egingo dutenari begira izatea edo euskal instituzioek erabateko protagonismoa hartu eta bake prozesua bideratzea?

Korapilo batzuk elkarrizketa beroaren baitan bakarrik askatuko dira, ez hauek isilaraziz eta gordez, ez gizartea ahanztura faltsuetara eramanez. Gizartearen protagonismoa eman behar zaio eta hori, batez ere, euskal instituzioen lana da. Udal eta foru hauteskundeon ondoren sortutako giroak hori 2011n baino hobeto egiteko egokiera utzi dute. Baliatu beharko litza-teke abagunea.

EUSKAL preso politikoen munduan, adibidez, eztabaida azaleratzen ari da. Amnistia kontzeptuaren inguruan, presoek gatazka honetan zein izaera duten, nola eman behar den haien kaleratzea, gizarteak zein funtzio bete behar duen... Hori guztia islatzen da azken asteetan argitara eman diren hainbat gutunetan. Eztabaida hori bake prozesuan kokatu eta berau laguntzea da alde guztietatik egin daitekeen ekarpenik eraikitzaileena. Eta berdin bake prozesuaren gainerako alor guztietan. Azaleratu, erraztu, lagundu eta gizarteratu. Horra bidea. ■

ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat

[f]arina




[F]arina Jatetxea

2 pertsonentzako
otordu bat

Urbina kalea, 5 · (Molinuevo Parkea)
Vitoria-Gasteiz ARABA

www.farinarestaurante.com **1**

Iruñeko Planetarioa



3 lagunentzako
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org **2**

Leintz Gatzagako gatz museoa



2 lagunentzako
bina sarrera

Dorletarako errepidea z/g.
20530 - Leintz-Gatzaga

emaila: www.leintzgatzaga.com **3**

Ruper Ordorika



Lurrean etzanda

5 CD opari

www.elkar.com **4**

ILLIMANI



Illimani

liburua opari

www.argia.eus/denda **5**

AZKEN IRABAZLEAK (2464. Argia)

A FUEGO NEGRO

Aitor Bravo Encinas (Leioa)

SAN TELMO MUSEOA

Jose Ramon Egiluz Ugarriza (Berriatua)

Isabel Etxeberria Ramirez (Astigarraga)

Jon Mikel Larrañaga Maiz (Usurbil)

AQUARIUMA

Mikel Ozaita Azpiroz (Ibarra)

Xabier Ugarte Billar (A Lama)

Irene Iturbe Arriola (Aretxabaleta)

Idoia Ormaetxea Irleta (Durango)

ARGIXORGIN

Imanol Aranburu Artano (Alegia)

Amara Berri Aek Euskaltegia (Donostia)

ERLEA

Inazio Otaegi Aizpeolea (Etxebarri)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

gunea

argia



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com